

Kontzeju

www.oñotzi.eus



Berbia Oñotzi



@BerbiaOñotzi



Kalifornia



Oñotzi Irratib

Oñotzi Udal aldizkaria | 2018ko urria | 287. zenbakia



DELIAK



HURRETIK GALA

Oñotiar izateaz harro zaudetenok galdu beharko ez zenuketen gala berezia

Erabaki zertan erabili 500.000 €

» Partaidetzako aurrekontu prozesua azken fasean sartu da: **bozkatzeko fasea**

Oñatiarrok udal aurrekontuetako 500.000 € zertan inbertitu erabakitzeko partaidetzako prozesua azken fasera iritsi da: bozkatzeko fasea.

Udaleko teknikariek ekainean herritarrek lehenetsitako 66 proposamenak baloratu dituzte eta hauen bideragarritasun teknikoa aztertu dute. Horietatik 38k jarraituko dute aurrera prozesuan. Gainontzekoak, arrazoi ezberdinak tarteko, kanpo geratu dira: batzuk, bideragarriak ez direlako, beste batzuk, dagoeneko 2018 urteko udal aurrekontuetan txertatuta daudelako, beste batzuk udalari ez dagokiolarako erabaki horiek hartzea, edo hasieran adostutako 120.000 €ko

aurrekontua gainditzeko dutelako.

Proposamen bakoitzaren balorazio tekniko zehatza jakin nahi izan ezkerro, www.oñati.eus/eu/partaidetzazko-aurrekontuak web atarian kontsulta daitezke guztiak.

BOZKETA

Azken fase honetara iritsi diren proposamenen artean 10 aukeratu behar ditu herritar bakoitzak, urriaren 31 baino lehen.

Aldizkari honekin batera banatu den esku-orrian azaltzen dira bozka emateko dauden aukera ezberdinak.

Proposamenak

1.- "Emakumeen Etxea" martxan jartzeko herri mailako diagnostikoa egitea. **12.500 €**

2.- Herrian dauden iturrien irisgarritasuna hobetzea. **36.000 €**

3.- Herriko hainbat tokitan banku edo eserleku gehiago jartzea. **14.000 €**

4.- Erabilera publikoko komun irisgarriak jartzea. Derrigorrezkoa 2 hautatzea. **55.000 €** komun bakoitza. Aukerak: Ugarkalden, Kalegoienan, Otadui Zuhaiztian, San Pedrotik Olaterako tartean, San Pedrotik Madalenara tartean, eta Olabarrietatik Asentziara tartean.

5.- Bizikletentzako aparkaleku estaliak ipintzea ikastetxe eta ekipamendu publikoen inguruetan: Kiroldegia-Txantxiku Ikastola, Kultur Etxea, Errekalde Herri Eskola, Benediktinak Elkar Hezi – Azkoagain (4 guztira): **60.000 €**

6.- Aire libreko zine emanaldiak eskaintzea (2 emanaldi urteko). **5.000 €**

7.- Haurren jolas parke bat estaltzea. Aukerak: San Martin auzokoa eta Ugarkalde auzokoa. **118.000 €**

8.- Olakua auzoko kirol kantxa hobetzea: margotu, sareak berritu eta eremua argiztatu. **47.000 €**

9.- Herrigunean altuera txikiko roko-dromo bat eraikitzekeo pareta bat gaitzea, adin eta maila ezberdinetarako aproposa. **2.000 €**

10.- San Martingo hariztian egun dagoen bidezidorra legar edo hartxintzarrez berregitea eta argiztatzea, korrika egiteko erosoago bihurtuz. **115.000 €**

11.- Arantzazuko Ama kaletik (Natra – Zahor paretik) Berezaio auzoko Santa Lutzia zelaira artean bidegorri bat eraikitzea, oinezko irisgarritasuna hobetzeko. **118.500 €**

12.- Errepideen ondotik doazen bidegorriak barrera bidez babestea. **80.000 €**

13.- Urdandietako udalaren ur depositurako baso-bidean dagoen lur jausia konpontzea. **7.000 €**

14.- Martzelino Zelaia kalean oinezkoek lehenetsia izateko trafikoa mugatzea, garajeetara sarbidea ahalbidetuz. **5.000 €**

15.- Zaintza jasotzen duten pertsonen eta hauen zaintzaileen arten sortzen diren harremani buruzko azterlan bat egitea, hauen bizipen eta esperientziak dokumentatzeko. **12.500 €**

16.- Adineko pertsonen erorketen prebentziorako eta gaitasun fisikoaren mantentzerako jarduerak garatzeko espazio bat egokitzea. **6.500 €**

17.- Egoitza tradizionala ez diren etxebizitza edo bizitoki aukera ezberdinen artean preferentziak zein diren aztertea. **12.500 €**

18.- Oñatiko hiri eremua zeharkatzen duten erreken azterketa integrala egitea. **120.000 €**

➔ Nork bozka dezake?

Oñatin **erroladatutako 16 urtetik** gorako herritarrek bozkatu dezakete. Bozkatzeko garaian datu pertsonalak jartzea ezinbestekoa izango da, datuak udal erroldarekin kontrastatu eta pertsona bakoitzak behin bakarrik bozkatzen duela bermatzeko.

Azken fasera iritsi diren proposamenetatik, herritar bakoitzak 10 aukeratu beharko ditu (gutxiago edo gehiago markatu ezker bozkek ez du baliorik izango), eta boto gehien jasotzen dituzten proposamenak udal aurrekontuetan txertatuko dira, 2019 eta 2020 urteetan zehar pixkanaka gauzatzu joateko. Urte bakoitzerako 250.000 €ko partida gordeko da.

➔ Nola bozkatu?

- Aldizkari honekin batera banatu den esku-orria bete eta postontziren batean utzita (udaletxean, kultur etxean, kiroldegian, Gaztelekuan, gizarte zerbitzuen bulegoan, Pake Lekun edo Eltzian).
- Internetez: www.oñati.eus/eu/partaidetzazko-aurrekontuak
- Aurrez aurre saio informatiboetan parte hartuz (*):
 - **Urriak 15**, udaletxeko pleno aretoa (18:30)
- 'Erakusketa eta postontzi ibiltaria' kale-ekimenera gerturatuz (*):
 - **Urriak 20**, Kale Barrian, Txokolateixa ondoko pergolan (11:30-13:30);
 - **Urriak 24**, San Lorentzoko plazoletan (18:00-20:00);
 - **Urriak 25**, Foruen enparantzan (17:00-19:00)

(*) Bertan proposamen guztien xehetasunak ezagutu ahal izango dira



Aldizkari honekin batera banatu den esku-orrian duzue informazio guztia

19.- Flora espezie inbaditzaileen kontrol eta erradikaziorako neurri efektiboagoak hartzea. **19.500 €**

20.- Bigarren mailako bideak (gurdi-bideak, errege bideak, etab.) berreskuratu ahal izateko inbentario bat egitea. **30.000 €**

21.- Torreauson, Munazategiko bidegurutzetik Azkonitza baserriraino doan bidea egokitzea: asfaltatu, bideko ertzak garbitu eta argiztatu. **22.000 €**

22.- Larraña auzoko Irubieta baserritik Olabarrieta auzoko Enparantza baserrira bitarteko bidea argiztatzea. **57.000 €**

23.- Torreausotik Zañartura doan erreka ertzeko bidea oinezkoentzako berreskuratzea. **106.000 €**

24.- Landa auzoetako tokirik esanguratsuenak seinalezatzea, herriko leku izenak galdu ez daitezen. **75.000 €**

25.- Gaitasun digitalak eskuratzeko formazioa eskaintzea (informazioaren eta

komunikazioaren teknologiak modu sortzaile, kritiko, eraginkor eta seguru batez erabiltzeko). **12.500 €**

26.- Azken 60 urteetako borroka arma-tuak Oñatin izan duen eraginaren inguruko ikerketa beka ateratzea. **12.500 €**

27.- Prehistoriako indusketa arkeologikoak egiteko programa bat garatzea, boluntario eta profesionalak elkarlanean arituta. **12.500 €**

28.- Zaborra lurrera ez botatzeko kontzientziazio kanpaina bat egitea. **5.000 €**

29.- Kartelak, pankartak edo pintadak horretarako egokitutako tokietatik kanpo ez egin edota jartzeko sentsibilizazio kanpaina bat egitea. **5.000 €**

30.- Industria-pabiloi hutsen eta hauen erabilera aukeren azterketa egitea. **12.500 €**

31.- Bide segurtasuna hobetzeko zebra-bideak argitzea. **20.000 €**

32.- Igotzeko eta oreka mantentzeko jolasekin gune bat hornitzea (sokak, sareak, etab) 6 eta 14 urte bitartekoentzako. **60.000 €**

33.- Olakua auzoko baso gunean, Natur Eskolatik Olapotoraino doan bidezidorra egokitzea. **120.000 €**

34.- Herriko hainbat puntutan hondakinak gaika botatzeko launakako zakarrentziak jartzea: Foruen Enparantza, Kalegoiena, Unibertsitate zaharra, Kale Zaharra, Kale Barria, Santa Marina, Errementari plaza, Santa Ana. **13.500 €**

35.- Olakua auzoa oinezkoentzako irisgarritasun neurrietara egokitzea eta argiteria hobetzea. **120.000 €**

36.- Kale Zaharreko espaloiak konpontzea. **120.000 €**

37.- Lesezarri auzoan oinezkoentzat espaloia eraikitzea. **120.000 €**

38.- Gazteei zuzendutako aste bat antolatzea, jarduera anitzekin. **30.000 €**

“ **PATRICIA BARCENA** CEAR-EUSKADIKO ZUZENDARIA

Errefuxiatuentzako aterpetxe bat herrian edukitzea aberastasuna da, zentzu guztietan”

CEAR-Euskadik kudeatuko du nazioarteko babesa eskatu duten pertsonen lehen harrera egiteko Oñatin zabalduko den aterpetxea. Eusko Jaurlaritza, Foru Aldundia eta Oñatiko udalarekin elkarlanean jardungo du.

Datozen egunetan irekiko ditu atek errefuxiatuentzako aterpetxeak Oñatin, Larrañako barnetegi ohian. CEAR-Euskadiko zuzendari Patricia Barcenak azaldu digu nola funtzionatuko duen zentroak.

Noiz zabalduko ditu atek aterpetxeak?

Egokitzapen lanak uste eta nahi baino gehitxoago ari dira luzatzen, baina espero dut urrian zehar prest egotea eta lehenengo pertsonak etortzen hastea, progresiboki, bertako lantaldea eta prozesuak egonkortu ahala.

Zein profiletako jendea etorriko da?

Historio eta bizipen gogorrak bizi izan dituzten pertsonak dira. Sorterrian jazarpena eta errepresioa pairatu duten gizon-emakumeak dira, eta ihes egitea lortu dutenak. Hona iritsitakoan babesa eskatu dute, eta orain zain daude, Estatuak errefuxiatuen harrera sisteman onartu zain. Hasieran, gehienak Saharaz hegoaldekoak eta siriarak izango dira.

Bi-hiru hilabetez egongo omen dira Oñatin.

Bai. Administrazioak den-



bora tarte hori behar izaten du asilo eskaerak ebazteko. Gero, pertsona horiek beste leku batzuetara bideratzen dituzte, epe ertain edo luze-ko egonaldiak egitera.

Zer eskainiko zaie Oñatiko aterpetxean?

Oinarrizko zerbitzu guztiak aseta izango dituzte hemen. Lantalde bat ere egongo da bertan (gizarte laguntzaileak, atezaina, administrariak...) eta laguntza teknikoa ere (psikologoak, abokatuak...) eskura izango dute.

Nolakoa izango da beraien eguneroko bizimodua?

Bizimodu normala egingo dute. Batzuek gehiago sozializatuko dute, beste batzuek gutxiago. Ez da berdina Eritreatik edo Siriatik datorren pertsona edo Hondurasetik datorren familia.

Zentroa irekia da, eta bakoitzak erabakitzen du ze bizimodu egin nahi duen.

Honelako zentro batek Oñatiko lasaitasun giroa hautsi dezakeen beldur diren herritarrei zer esaten diezu?

Oñatira etorriko diren pertsonak gure bulegoetatik pasa dira aurrez, eta esperientziak esaten digu ez direla gatazkatsuak, oro har. Nekatuta egoten dira, eta ez dute lisakarretan aritzeko gogorik izaten. Alderantziaz, ahalegin berezia egiten dute esker ona adierazteko, azkenean norbaitek duintasunez artatu dituelako.

Beraz, lasaitasun mezua igorri nahi dut. Jendeak naturaltasunez har dezala zentroa, eta edozein modutan, elkarrenganako errespetuz joka dezagula.

Laguntzeko gogoia ere adierazi du jende askok.

Bai, eta eskertzekoa da. Zentroa martxan jarri ondoren jarraipen batzorde bat osatuko dugu udalarekin eta herriko eragileekin (Hotz...) batera, elkarlanerako aukera ezberdinak aztertzeko.

Zer eman diezaioke zentro honek Oñatiri?

Nik uste dut aberastasun bat dela zentzu guztietan: dibertsitatean, baloreetan, kultur aniztasunean... eta baita ekonomikoki ere, zentroak herriko errekurtsu eta baliabide ezberdinen beharra izango baitu.

“

Esperientziak erakusten digu aterpetxera etorriko diren pertsonak ez direla gatazkatsuak.

Zer iruditzen zaizu aterpetxea Oñatin irekitzea?

Mikel Biain
ALKATEA



“Aukera bat da elkartasun ariketa erraldoia egiteko. Alderdi gizatiar batetik erantzukizun eta betebeharrak bat daukagu pertsona hauekiko. Garai batean euskal herritar askok jo behar izan zuten erbestera eta orain geuri dagokigu laguntzea. Lasai gaude, CEAREkoek eskarmentua dutelako, eta erakundeen (Eusko Jaurlaritza, eta Foru Aldundia) inplikazioa ere badaukagu. Eta herritar gehienak ere gogoz daude laguntzeko. Beraz, gure esku dago orain pertsona hauei behar eta merezi duten erantzuna ematea.

Lourdes Idoiaga
ZINEGOTZIA



“Uste dugu solidarioak izan behar dugula. Etorriko diren pertsonak gerra, gosea eta jazarpena pairatu behar izan dute, eta ihes egin behar izan dute sorterritik, pena handiz, ahal zuten moduan. Euskaldunak ere izan gara iheslariak bere garaian eta, beraz, ikuspuntu humanista batetik uste dugu lagundu egin behar diegula.

Eusko Jaurlaritzak dauka azpiegitura hori Larrañan, eta proposatu zigunean



Larrañan irekiko dute errefuxiatuentzako aterpetxea

aterpetxea bertan jartzea, Oñatiko udalbatza oso ados egon ginen. CEAR ezagutzen dugu eta uste dugu oso ondo bideratuko duela. Beraz herritarrei esango nieke ez izateko beldurrik. Behar beharrezko laguntza dela uste dugu, eta horrekin batera munduko agintariei exijitu behar diegu konpontzea herri horietako gatazkak, eta laguntza eman diezaietela bertan garatzeko.

Edurne Saez
HOTZ-OÑATI



“Beharrezkoak diren horrelako zentro bat, gero eta asilo eskaera gehiago daudelako, eta erantzun bat jaso bitartean nonbaiten egon behar dutelako, kalean utzi nahi ez baditugu. Azken finean pertsonak dira eta ez datoz hona kapritxoaz; oso egoera latzak bizi behar izan dituzte, eta beharrezkoa da laguntza ematea. Jendeak ez du beldurrik izan behar. Aterpetxea kudeatuko duen CEAR elkarteak esperientzia

Jose Antonio Urteaga
HERMANSOLOÑA



“Ondo ikusten dut aterpetxea Oñatin jartzea. Pittin bat kezkatzen nauena kopurua da; 100 pertsona Oñati bezalako herri batean, inpaktutxoak izan daitekeela uste dut. Baina badute esperientzia eta pentsatzen dut gauzak ondo egingo dituztela. Erakunde publikoak ados daude, gai hauetan herrian gabiltzan taldeak ere bai; beraz, ez dut uste kezkatu behar dugunik. Jarraipen batzordea eratzten denean, gu prest gaude parte hartzeko eta ahal dugun neurrian laguntzeko.

Nieves Barrena
LAGUN LEKU



“Orain arte urrutitik ikusi eta bizi izan dugu errefuxiatuen arazoa, baina orain herrian bertan izango dugu, eta gure aldetik behintzat nahi genuke ahal dugun gehien laguntzea. Begi onez ikusten dugu hutsik zegoen azpiegitura hori errefuxiatuei laguntzeko erabiltzea. Ez dugu beldurrik izan behar. Ikusten dugu zein egoera latzak bizi dituzten pertsona horiek eta, beraz, gure esku dagoena egin behar dugu Oñatin ahalik eta ondoen egon daitezen.

Itziar Agirre
LARRAÑA INSTITUTUA



“Sentipen kontraerriak izan ditugu. Albisteak jakin genuenean harrituta geratu ginen, bizilagunak izango garelako, eraikin berean gaudelako, eta inor ez delako gurekin harremanetan jarri, ez Lehendakaritza, ez CEAR, ez inor, eta baditugu argitu beharreko zenbait puntu eguneroko funtzionamenduari dagokionez. Bestalde, ondo ikusten dugu hutsik dagoen azpiegitura hori erabiltzea migratzaileei babesleku duin bat eskaintzeko.



Etxe-Aundi
Hotela Jabetza

Tel. 943 78 19 56
www.etxeaundi.com







'Hurretik' Gala

oñatiartasuna ospatzeko

'Herri txiki, infernu handi' erako gala egingo da **urriaren 19an**, Santa Anan (22:00), **Oñatiko ondarearen transmisioa** bermatzea helburu duen **Hurretik** proiektuaren baitan

Oñatiartasuna ospatzeko gala berezia egingo da urriaren 19an. Euskal telebistan ezaguna egin den 'Herri txiki, infernu handi' erako saioa izango da, arina eta dinamikoa, umorea ardatz izango duena, Potx eta Lotx herriko pailazoen gidatuta.

Esketxak eta hainbat herritarrekin aurrez grabatutako bideoak tartekatuz, 'Hurretik' egitasmoaren inguruan jakin beharreko guztia azalduko dute modu ulergarri eta dibertigarrian. Zer da 'Hurretik'? Zer esan nahi dugu Oñatiko ondarearen transmisioaz ari garenean? Zergatik da hain garrantzitsua transmisioa bermatzea belaunaldiz belaunaldi?

HERRITIK HERRIRAKO

Oñatiartasuna ospatzeko modu bat izango da 'Hurretik' gala. Oñatiarrak gara, harro gaude, eta eutsi egin nahi diogu sentipen horri. Eta horretarako balioan jarri behar ditugu amankomunean ditugun ezaugarriak, belaunaldi berriei transmititzeko. Eta hori herritar guztion artean egin beharreko lana da; herrian sortu eta herriarentzat izango den proiektua da 'Hurretik'.

Urriaren 19ko gala irekia da herritar guztientzat. Dohainik izango da, baina aurrez gonbidapena eskuratu beharko da udaletxean eta Txokolateixan, Santa Ana aretoko aforoa mugatua baita.

Saioa dohainik izango da, baina gonbidapenak eskuratu beharko dira udaletxean eta Txokolateixan



Amaia Igartua
ARKITEKTURA ESTUDIOA

-Zaharberritzeak -Ikuskaritza Teknikoak (ITE) -Ziurtagiri energetikoak (CEE)
-Diru laguntzen gestioa-igogailuen proiektuak -Barne dekorazioa-Jarduera lizentziak
tel: 677 31 20 57 • email: amaiigartua@gmail.com • Oñati



COINBROKER
OÑATI ASEGURU ARTEKARITZA
CORREDURIA DE SEGUROS

Arantzazu Ama Kalea, 9 • 20560 Oñati

943 089 006 • oñati@coinbroker.eus
www.coinbroker.eus

Zertarako 'Hurretik'?



Oñatiko herri izaerari eta nortasunari eustea helburu duen egitasmoa da 'Hurretik'. Oñatiarrak gara eta harro gaude, eta bizirik mantendu nahi dugu sentipen hori. Baina, horretarako, ezagutu egin behar da; ezagutu behar dugu gure historia, ohiturak, natura, artea, hizkuntza...

Gure herriaren ondarea, hitz batean. Ezagutzen ez badugu, nekez maitatuko dugulako., eta gutxiago belaunaldi berriei transmititu.

Orain dela gutxira arte, etxeko sukaldeko mahaiaren bueltan egiten zen herriko ondarearen transmisioa, istorioak eta gertaerak kontatuz, eta kantu nahiz bertso bidez. Baina, tamalez, etxeko transmisioak indarra galdu du. Gaur egun, informazioaren gizartean bizi garen honetan, munduko beste puntako informazioa hel gaitzke klik bat eginez, eta, askotan, gehiago dakigu kanpoko gauzez, herrikoiez baino.

Kezka horrek eraginda, 'Hurretik' (*Gertutik* esan nahi duen Oñatiko hitza erabiliz) ekimena jarri zuen abian udaleko Hezkuntza sailak, herriko ikastetxeekin eta Euslatalearen Topagunearekin elkarlanean, helburu garbi batekin: Oñatiko ondarea belaunaldi berriei helaraztea.

Horretarako, trasnmisio hori bermatzeko, herriko ikastetxeetan (LH1etik LH6ra arteko mailetan) erabiltzeko ikas-materiala sortuko da propio. Dagoeneko ikastetxeen esku dago LH1 eta LH2 mailetan lantzeko materiala.

Baina 'Hurretik' proiektuak ez du ikastetxeetara mugatu nahi. Egitasmoa arrakastatsua izan dadin, beharrezkoa da herritarrek ere protagonista izatea, proiektuan parte hartzea. Azken batean, herritar askorengan bizirik dagoen jakintza jaso nahi da, ondorengo belaunaldiei helarazteko.

Ildo horretan, 'Hurretik' proiektua gizarteratzeko asmoz, hainbat tertulia saio egin dira, eta urriaren 19ko galak mugarri izan nahi du prozesu horretan. Ondarearen trasnmisioaren garrantziaz jabetu, eta herritarrez osatutako talde eragile bat osatu nahi da, proiektua indartu eta sendotzeko.



Ikas-materiala sarean denon eskura

Bi urteko ibilbidea egin du jada 'Hurretik' egitasmoak, eta, dagoeneko, hainbat lan egin dira. Alde batetik, LH1 eta LH2 mailetan erabiltzeko ikas-materiala sortu da, herriko ikastetxeekin elkarlanean. Ahalegin berezia izan da, material praktikoa, erabilgarria eta erakargarria izan dadin. Sortutako materiala <http://hurretik.eus> atarian egongo da ikusgai, herritar guztien eskura.

Bestalde, ikus-entzunezko bat ere osatu da, Huhezi fakultateko ikasleen laguntzarekin, 'Hurretik' proiektuaren nondik norakoak azaltzeko.

www.hurretik.eus helbidean egongo da eskura materiala

ARRIZABALAGA
Aroztegia

Berezaio Ind. 10
Tel. 943 78 14 64

PAKITA
Altzariak

Sta. Marina, 6
Tel. 943 78 02 21

SUKALDE ALTZARIAK • ALTZARI RUSTINDAK • NEURRIERA ENPOTRATURIKO ALTZARIAK

IRAZOLA
Okindegia

Ostiral, asteburu
eta jai egunetan
baserriko agia,
eguzteko labean sartu.

Larraña auzoa, 44 • Tel.: 943 78 25 97 • Mug.: 688 630 754



“Gizartea zahartuz doa, pazienteen adina goraka, eta gure erronka da errealitate berri horretara moldatzea”

Txaro Martinez Perez (Bergara, 1968) da Oñatiko osasun zentroko zuzendaria urtarilaz geroztik, kargu berean hogeitun urte luzez izan den Santi Ayechuren lekua betetz. Txaro ez da berria Oñatin; hamar urte darama familia-mediku lanetan, eta Ayechuren zuzendaritza taldeko kide izan da. Oñatiko Lehen Mailako Arretako Unitatean dituzten erronkei buruz hitz egin dugu berarekin.

Zeren arabera aukeratzen da osasun zentroko zuzendaria?
Orain arteko arduradunak, Ayechuk, urte asko zeraman karguan, eta atsedena behar zuen. Ni bere ondoan egon naiz zuzendaritza taldean, ia hamar urtez, eta hemengo lantaldeak pentsatu du neu nintzela pertsona egokiena kargu hori betetzeko. Epe-mugarik gabe hatzen den ardura da.

Zer dakar berekin zuzendari karguak? Eragiten al dio zure eguneroko kontsultari?
Erantzukizuna. Lan gehiago eta erronka bat ere bai; azken

batean, zuzendariaren ardura baita anbulatorioan egiten diren lan guztiak ahalik eta ondoen koordinatzea, eta jendeak gustura eta ondo lan egin ahal izatea.

Dena den, ez nago bakarrik; bost laguneko zuzendaritza talde bat daukat inguruan (erizaintza eta administrazio arloko langileen ordezkariekin) eta erabaki gehienak adostuak izaten dira, orain arte egin izan den bezala.

Zein dira zure erronka edo helburu nagusiak?
Niri gustatzen zait lankideei

bizimodua erraztea ahal den neurrian; alegia, beren lana egin dezatela, gainerako gauzez kezkatu barik.

Gainerakoan, gaur egun dugun kezka nagusietako bat da, gizartea zahartuz doala, pazienteen adina goraka doala, eta behar bereziak dituzten pertsonak direla; gaixotasunaz gain, mugikortasun arazoak eta bestelako behar bereziak izaten dituzte. Eta, ondorioz, asko aldatzen ari da lehen mailako arreta eta baita ospitalekoa ere, eta gu egoera berri horretara moldatzen ari gara.

Beraz, gure helburua izan behar da, gaixotasun arinak dituzten pertsonak gai izatea, aholku batzuekin eta heziketa-ekin, beren burua artatzeko, kontsultara etorri gabe; hala, medikuok denbora gehiago eskaini ahal izatea gaixotasun kronikoei eta adineko pertsonari, horiek baitira behar handiena dutenak.

Pazienteen historia klinikoak bateratzeko lanean ere ari zarete, ezta?

Bai. Gipuzkoa mailan ni neuz gizatzen ari naizen proiektu bat da. Osakidetza garatu duen *Osabide Global* programa baten bidez, Lehen Mailako Arretako eta Ospitaleko historialak bateratzeko. Inbertsio handia egiten ari da Osakidetza proiektu hau aurrera ateratzeko, eta uste dut abantaila asko dituela, batez ere pazienteen segurtasunari begira, historiala bakarra izango delako, eta mediku guztiok eskura izango dugulako.

Zergatik ez dago pediatra euskaldunik Oñati bezalako herri euskaldun batean?

Ez da erraza. Ez dago pediatra asko eta, gainera, mediku gazteek nahiago izaten dute hiriburuetan lan egin. Gure plazak ez dira hain erakargarriak eta, beraz, arazoak izaten

ditugu pediatrik ekartzeko eta, bereziki, euskaraz dakitenak.

Zenbat mediku zaudete Oñatin eta zenbat pertsona artatzen dituzue egunean?

Zazpi mediku gaude Oñatin eta bakoitzak 1.400-1.500 pertsonako kupoa dauka. Kopuru onargarria da; kontua da, Oñati herri oso zabala dela, eta gaixo asko etxean artatu behar izaten ditugunez, joan-etorrietan denbora gehiago ematen dugula.

Urte sasoiaren arabera kopurua aldatzen bada ere, egunean 30 bat pertsona artatzen ditugu, gutxienez, eta bakoitzari 10 minutuko tartea eskaintzen diogu, gutxienez. Batzuetan ez da nahikoa izaten, eta gainera, lehen mailako arretan ustekabe asko sortzen dira (programatu gabeko kontsultak, elektroak egin beharra...). Beraz ez da erraza izaten agenda betetzea eta, batzuetan atzerapenak gertatzen dira, eta pazienteek itxoin egin behar izaten dute kontsultan. Saiatzen gara agenda betetzen, baina oso zaila da, eta, horregatik, kontsiderazio pittin bat eskatzen diegu pazienteei.

Kontsultan artatzen ditugun pertsonen gain, gaur egun lan asko egiten dugu telefonoz eta online. Pazienteen bizitza errazten saiatzen gara.

Anbulatorioko aparkalekuan 10 plaza erreserbatu dituzue bertako langileontzat, eta horrek kexuak eragin ditu.

Ez da kapritxo hartutako neurri bat. Guk sarri joan behar izaten dugu gaixoen etxeetara, eta askotan larrialdiak izaten dira, eta, beraz, kotxea hurrean edukitzea komeni zaigu. Eta bueltatzen garenean ere ezin dugu denbora galdu aparkaleku bila. Horregatik, udaltzaingorekin hitz egin, eta 10 plaza erreserbatzea adostu genuen, mediku eta erizainek bakarrik

'Bizi-testamentua' ambulatorioan egin ahal izango da laister

Bizi-testamentua (*Aurretiazko Borondateen Agiria* da izen ofiziala) familia medikuarekin egin ahal izango da laister, herriko osasun zentroan.

Bizi-testamentua idatzizko dokumentu bat da, non pertsona batek adierazten duen zer nolako osasun laguntza edo tratamendu hartu nahi duen, bere borondatea adierazteko gauza ez denean, indarrean dagoen legediaren baitan beti ere. Hiltzean organoekin zer egitea nahi duen ere adierazten da dokumentuan, besteak beste.

Orain arte, eta gaur egun ere, oraindik, Gasteizen dagoen erregistrora joan behar du Bizi-testamentua egin nahi duenak. Edo, bestela, notario aurrean ere egin dezake. Baina, esan bezala, Euskadiko osasun saileko arduradunek deszentralizatu eta erraztu egin nahi dute aurretiazko borondateen agiria egiteko prozesua, eta, laister, gure familia medikuaren kontsultan egin ahal izango dugu, honen laguntzarekin.

“Zerbitzu hori modu egokian eskaini ahal izateko formazioa jasotzen ari gara Osakidetzaren aldetik, eta, bai, asmoa da, laister gure kontsultan eskaini ahal izatea aukera hori” adierazi digu Txaro Martinezek.

Adinez nagusi den edozein herritarrek egin dezake Bizi-testamentua, baina, batez ere, patologia kronikoren bat edo etorkizunean konplikazioak izan ditzaketen gaixotasunen kasuan da gomendagarria aurretiazko borondateen dokumentua egitea. Agiri hau edozein momentutan alda daiteke, baita deuseztatu ere.

Euskal Autonomia Erkidegoan 2003an eratu zen Aurretiazko Borondateen Erregistroa, eta orduz geroztik ia 22.000 agiri egin dira, 7.800 Gipuzkoan (9,9ko tasa, mila biztanleko). Tasarik altuena estatuko erkidegoen artean.

DATUAK

Oñatin zazpi familia-mediku gaude. Bakoitzak 1.400-1.500 pertsonako kupoa dauka, eta egunean 30 bat paziente artatzen dituzte, gutxinenez. Kontsultan ez ezik, telefonoz eta online ere lan asko egiten dute, pazienteen bizitza errazteko.

“Ez dago pediatria asko eta nahiago dute hiriburuan lan egin. Ez da erraza pediatrik ekartzea eta, gutxiago, euskaldunak”

“Anbulatorioko aparkalekutik sarbide zuzena egokitzeko aukera aztertu dugu, baina ez da bideragarria”

erabiltzeko.

Oñatiko osasun zentroak irisgarritasun mailan ditu gabezia edo oztopo nagusiak; eskailerak alde batean, aldapa bestean.... Aparkalekutik sarbide zuzena egokitzea eskatu izan dute herritarrek. Ba al dago aukerarik?

Aztertu dugu aukera hori, baina larrialdietarako atea da, eta eraikinaren diseinuagatik ezin da sarbide zuzena egokitu aparkalekutik. Nahiko genuke, baina ez da bideragarria.

Dena den, gogoratu nahi dut, behe solairuan sarbide zuzena dagoela igogailura mugikortasun arazoak dituen jendearentzat, eta ate horretatik 25 metrora minusbaliatuentzako bi aparkaleku daudela.



Putzua egokitze lan handiena eginda dago. Urriaren 20an emango zaio amaiera auzolanean.

IBAILAGUN EGITARAUA

URRIAK 15, astelehena

18:30 Arantzazu erreka Paisaia Planaren ekintza plana diseinatzeko 2. saio teknikoa. Udaletxean.

URRIAK 17, asteazkena

18:30 Oñatiko anfibioei buruzko ikerketa lanaren aurkezpena. Kultur etxean.

URRIAK 20, larunbata

10:00 'Odonatoak, uraren hegialak' erakusketa gidatua Olakuako dorrean.

11:00 Olapotoko putzua berreskuratzeko auzolana.

16:00 Antzubar gunera ibilaldia Natur Eskolako kideek gidatuta.

URRIAK 21, igandea

9:30 Erreka garbiketa eta erakusketa plazan erreka-ateratako zabor eta landare inbaditzaileekin.

Anfibioentzako putzua egokituko dute Olapoton

Errekak garbi mantentzearen garrantziaz sentsibilizatzeko IBAILAGUN jardunaldien baitan egingo dira Olapotoko putzua berreskuratzeko lanak auzolanean, urriaren 20an

Errekak eta, oro har, ur inguruneak garbi mantentzearen garrantziaz sentsibilizatu, eta bioaniztasunaren aldetik duten aberastasuna ezagutzera emateko asmoz, VI. Ibailagun Jardunaldiak antolatu dituzte Oñatiko Natur Eskolak eta udaleko Ingurumen sailak.

Egitarauan ikus daitekeen moduan, hainbat ekitaldi izango dira aste osoan zehar (urriak 15 - 21), eta horien artean kokatzen da Olapoton anfibioentzako putzu bat berreskuratzeko egitasmoa.

Olapotoko basoan, metal-ura ematen duen iturriaren gainaldean potolo edo sakon-gune bat dago, Murguzurretik behera datozen ur emari txikiekin betetzen dena. Halako putzuak oso garrantzitsuak izaten dira anfibioentzat, bertan ugaltzen direlako, eta baita beste animalia urtar batzuentzat ere (burruntziak, kakalardo urtarrak, sorgin orratzak...).

Kontua da, ordea,



Olapotoko putzu horri drainatzeko tutua ipini ziotela duela urte batzuk, eta curia egiten duenean bete egiten bada ere, ura galdu egiten du. Horregatik, Natur Eskolako kideak aspaldi eskatzen ari ziren putzu hori lehengoratzeko, inguruko bioaniztasuna aberasteko, eskolarentzat beste baliabide bat sortzeko, eta herritarrentzat, oro har, gune eder bat berreskuratzeko.

Bestalde, Aranzadi elkarteak ere Oñatiko anfibioei buruzko ikerketa bat egiten ari dira, udalak emandako ingurumen bekari esker, eta denen artean pentsatu dute komenigarria dela Olapotoko putzua lehengoratzeko, Aranzadiren gidaritzapean.

15 bat metroko diametroko putzua egokituko da. Makina hondeatzaile batekin egin dira lurra atera eta putzuari forma emateko lanak, eta urriaren 20an, Ibailagun jardunaldien baitan, azken lanak egingo dira auzolanean: kautxu eta geotextil geruzak ipiniko dira putzuaren gainazalean, eta lurrez estaliko da, landareak haz daitezen.

Gero, beste egun batean, itxitura bat egingo zaio putzuari, txakurrak sartu ez daitezen (ez da komeni txakurrak hurbiltzea putzura), eta informazio panelak ipiniko dira, halako hezeguneei duten funtzioari eta anfibioei buruzko informazioarekin.

ANTZUBARera ibilaldia

Duela mende bat herriko iturrietara ura ekartzeko egin zen azpiegitura ezagutzeko aukera



Jende askorentzat leku ezezaguna da Antzubar, baina ezagutzea merezi duen tokia da. Aloña eta Belar inguruko urak azaleratzen dira bertan, eta orain dela 140 bat urte Oñatiko iturrietara ura ekartzeko azpiegitura lanak egin ziren bertan. Ur garbia eta freskoa da Antzubarretik behera datorrena, baina kloratu gabea denez, gaur egun kaleko iturriak Urkuluko urarekin hornitzen dira, eta Antzubarreko ura, baserri auzoetako ur aska batzuk hornitzeko baino ez da erabiltzen. Urriaren 20an (herriko plazan, 16:00) Antzubarreko azpiegitura (arketak, zeramikazko hodiak...) ikusteko aukera egongo da Natur Eskolako kideek gidatuta.

Erreka garbiketa eta landare inbaditzaileen erakusketa



Urtero bezala, Ibailagun jardunaldien baitan erreka garbiketa egingo da auzolanean (urriaren 21ean, 9:30etan, Foru enparantzan). Aurreko bost urteetan egin den lanari esker hondakin tona asko atera dira errekatik, eta, egia iri zor, gaur egun ez da ikusten leku bat bereziki zikin dagoena. Beraz, erreposoa egingo da erreka osoan zehar, taldetan banatuta.

ERAKUSKETA. Hondakinak ez ezik, urtetik urtera goraka doazen landare espezie inbaditzaileak ere kenduko dira erreka bazterretatik, eta ondoren erakusketa jarriko da herriko plazan, landare hauei buruzko informazioarekin: nola iritsi diren, ze kalte egiten ari diren, nola eragotzi hedapena....

Iturrietara bueltatu

Harro egoteko moduko iturri sarea daukagu herrian, baina urte askoan kaleko iturrirei bizkarra emanda bizi izan gara; galdu egin dugu bertatik edateko ohitura, eta horren ordez tabernetan ikusi ohi ditugu neska-mutikoak ur eske.



Beraz, iturriak aldarrikatu behar ditugu, eta asmo horrekin, Olapotoko auzolanean eta erreka garbiketan parte hartzen duten herritarrei kantimplora bat emango zaie, herrigunean dauden iturrien mapa erakusten duen irudi batekin.

SELFIE LEHIAKETA

Horrez gain, *Selfie* Lehiaketa egingo da aste osoan zehar (urriak 15-21). 'Edan iturriko ura' gaiaren inguruko argazkiak bidali beharko dira edanitturrikoura@gmail.com helbidera. *Selfie* orijinalenentzako sariak egongo dira.

Oñatiko anfibioak



Aranzadi zientzia elkarteak Oñatiko anfibioei buruzko ikerketa egin du, udalak emandako ingurumen bekaren bidez, eta urriaren 17an aurkeztuko dituzte ikerketa lan horren emaitzak (kultur etxean, 18:30). Ze anfibio mota dauden Oñatin, non, nola ugaltzen diren, ur putzu eta hezeguneen garrantzia... eta beste hainbat datu interesgarri azalduko dituzte.

Arantzazu erreka ekintza plana

Arantzazu erreka ardatzean dauden interes guñeak identifikatu (bioaniztasuna, ur jauzien sistema, lurpeko paisaia, errotak...), eta horiek balioan jartzeko eta arazoei aurre egiteko (Jaturabeko presaren kolmatazioa, adibidez) ekintza plana prestatzen dihardu udalak, eta horretarako bigarren saioa egingo da, herritar guztiei irekia, urriaren 15ean (udaletxean, 18:30).

Baratzeko Pikua Jolasgunea

1. Tipia

Belar ezpondaren beheko aldean grada moduko lur egitura bat sortuko da bi pneumatiko bata bestearen gainean jarrita. Sortzen den espazio borobilaren erdian alertze enbor luze eta zuzenek sortuko duten kono formadun tipi bat kokatuko da, jolaserako balioko duena. Aldameneko pareta beltzez magotuko da eta arbel funtzioa izango du.

2. Txirrista eta eskaiera


Goiko plazatik jolasgunera dagoen 3,5 m-ko desnibela baliatuz, 1,5 m-ko zabalera duen txirrista egokituko da, altzairuzkoa, eta honen aldamenean, goiko plazara modu erosoan igo ahal izateko, tamaina ezberdineko pneumatikoz osatuko den eskaiera egokituko da.

3. Pikondoaren plaza

Iturri plazaren albo batean, pikondoa nagusi izango den plaza zirkular bat sortuko da. Pikondora igo eta uzta batzeko aukera izango dute gaztetxoek. Zuhaitzaren inguruan traktoreen pneumatiko handiak sakabanatuko dira, eserleku gisa erabili ahal izateko. Pneumatikoen barruan usaindun loreak landatuko dituzte.

4. Iturrien plaza

Jolasgunearen erdialdean, gutxi gora behera, hiru iturri izango duen gunea antolatuko da, 3,5 m-ko diametroa izango duen zirkuluan. Iturrietatik ura atera dadin manibela bati eragin beharko diote haurrek, antzina bezala. Ur putzuan ibai-harri borobilak egongo dira, kautxozko gomaz estaliak. Gunearen zentralitatea indartzeko, akazi enbor zurituak jarriko dira zutika.



5. Erraldioen plaza

Hiru bat metroko perimetroa duten hainbat pago lehor jarriko dira zutika. Zuhaitz enbor hauek mitologiako edozein pertsonaia bihurtu ahal izango dira geure imajinazioan. Enborrei eusteko behar den oinarria eserleku bihurtuko da., eta aranondoak landatuko dira itzala emateko.

6. Tunel berdea

Errepide aldera ematen duen sarreran arku formadun burdinezko egitura bat jarriko da, eta albo bakoitzean landare igokariak landatuko dira, tunela osatuz eta sarrerari deigarritasuna eta misterioa emateko.

7. Rokodromoa

Jolasgunea mugatzen duen pareta honetan rokodromo txiki bat sortuko da. Helduleku edo presak 2,5 metroko alturatik behera jarriko dira. Erortze amortiguazio egokia bermatzeko, 40 zentimetroko sakonerako pinu-azal txikituz osatutako zoladura jarriko da.

'BARATZEKO PIKUA'

jolasgune alternatiboa egokitzeko lanak hil honetan hasiko dira San Martinen



San Martin auzuko 18 eta 20 zenbakidun etxe-blokeen artean egokitzeko da jolasgunea



Goiko plazan ere berdegunea handituko da , gaur egun dauden bi borobil berdeak elkartuz.



Ustekaberik ez bada urrian hasiko dira San Martin gunean 'Baratzeko Pikua' izeneko jolasgunea egokitzeko lanak. Eskumako irudiek erakusten duten moduan, auzuneko 18 eta 20 zenbakidun atarien artean dagoen 900m²-ko lursailean egokitzeko da jolasgunea. Ez da ohiko jolas parke bat izango; naturarekin harreman estuan, haurren sormena eta irudimena lantzeko bidea emango duten hainbat elementu egokitzeko dira bertan, ezkerreko orrialdean azaltzen den moduan.

Jolasgune berria sortzeaz gain, goiko aldean dagoen plazan ere aldaketa bat egingo da, gaur egun dauden bi berdegune zirkularrak abiapuntu hartuta, lorategi zirkular gehiago sortuz.

Lur enpresako Iñigo Segurola paisajista ezagunak idatzi du proiektu teknikoa, eta Ugarte Eraikuntza enpresak egingo ditu lanak 135.942 eurotan (+ BEZ). Bi hilabeteko epea aurreikusten da lanak burutzeko.



Azalera gogor gutxiago eta berdegune gehiago

Jolasgune berria sortzeaz gain, San Martin auzuneko plaza nagusian dauden bi berdegune zirkularrak lotu eta laukizuzen formako berdegune zabalagoa (350m² gehiago) egokitzeko da. Aldenik alde gurutzatuko duen bidexka bat egokitzeko da bertan, eta bi zuhaitz mota landatuko dira: hosto iraunkorra duten arteak, eta negu bukaera aldera zuri kolorez jazten diren gereziando japoniarrak. Gainera, beltz koloreko kareharri handiak jarriko dira eserleku modura.

ETXiAN
Onatiko inmobiliaria berria
Donostian etxea erosteko ere aukera onenen informazioa eta laguntza

Etxebizitza edo lokal bat saldu nahi duzu Oñatin?

Tel.: 943 71 61 60
www.etxian.net

Etixian

carpintería
GARIBAI
aroztegia

Mota guztietako zurgintza-lanak

Garibai 11 • Telf.: 943 78 14 54 - garibai@garibai-aroztegia.com
www.garibai-aroztegia.com



ETORKIZUNeko OÑATI diseinatzeko unea da

HAPOa (Hiri Antolamendurako Plan Orokorra) berritzeari ekin dio udalak, eta horretarako herritarren iritzi eta ekarpenak jaso nahi ditu

Hurrengo hilabeteetan sarri entzungo dugun akronimoa da HAPO (Hiri Antolamendurako Plan Orokorra). Berebiziko garrantzia duen dokumentua da, bertan planifikatzen eta arautzen baita nola garatuko den Oñati hurrengo 20 bat urteetan. Etxebizitzak non eta zenbat eraiki ahal izango diren, non industriak, non kultur eta kirol ekipamenduak, non errepide eta pistak, nola babestuko ditugun natur baliabideak... Hau da, nolako herria, eta, neurri batean, nolako bizimodua izan nahi dugun finkatzen duen dokumentua da, eta horregatik oso inportantea da herritarrek parte hartzea, herritarrok baitakigu, inork baino hobeto, zein behar dituen Oñatik eta nolako herrian bizi nahi dugun.

Udalak Sabai Arkitektoak enpresa kontratatu du HAPOa idazteko, baina ahalegin berezia egingo du herritarren parte hartzea sustatzeko. "Herritarren bizipenak oinarritzekoak dira, amesten dugun herria denon artean eraiki ahal izateko. Horregatik, prozesuan zehar modu aktiboan parte hartzeko deia luzatzen diegu herritarrei" adierazi du udaleko gobernu taldeak. Ildo horretan, webgune bat aktibatuko da laster www.oñati.eus atarian, prozesuaren berri eman, dokumentuak kontsultatu eta herritarren ekarpenak jasotzeko



Urriaren 17 eta 18an karpak plazan

Irailaren 24an egin zen diagnostiko faseko lehen bilera irekia eta herritar ugari parte hartu zuten. Hurrengo hitzordua urriaren 17-18an izango da. Udalak karpak batzuk ipiniko ditu Foruen plazan herritarren iritziak jaso eta diagnostikoa osatzen joateko.



Adineko eta Familientzako zerbitzua ipiniko du udalak

Aldizkari honekin batera banatu den eskuorrian ikus daitekeen moduan, adinekoentzako eta familientzako zerbitzua jarriko du martxan udalak. Oñatiko adineko pertsona eta familia zaintzaileen bizi-kalitatea hobetzen lagundu nahi duen informazio eta aholkularitza zerbitzua izango da. Doako zerbitzua izango da eta Gizarte Zerbitzuetako bulegoetan (Bidebarrieta, 12) eskainiko da (17:00-20:00). Aurrez hitzordua eskatzea gomendatzen da.

HITZALDI ZIKLOA

Bulegoko zerbitzuaz gain, hitzaldi ziklo bat ere antolatu dute herritar guztiei zuzendua. Urrian izango dira aurreneko bi hitzaldiak, Euskaldun Berria gelan (Bidebarrieta, 18) 18:00.

- URRIAK 16

'Gure zahartzea bizi menpekotasunik gabe edo menpekotasunarekin'

- URRIAK 23

'Autozaintza. Zaintzen baduzu, zeure burua zaindu ezazu'

Leuzemiari buruzko mahai informatiboa

Hezur-muin emaileen Iturrigorri elkarteak mahai informatiboa ipiniko du urriaren 27an Foruen enparantzian (11:00-14:00), leuzemiari eta beste gaitz hematologikoen inguruko informazioa eman eta hezur-muinaren donazioen alde. Herritarren kezka eta galderei erantzungo diete bertan.

Gainera, azaroaren 14, 21 eta 28an 'Mindfulness eta erlaxazio' tailerrak emango dituzte Oñatin. Bizipenak partekatzeke gunea sortzea da helburua.

Gure beharra baduzu,
ondo-ondoan gaituzu.
Arrasaten.

Hain ondo zaindu nahi zaituguncz, Arrasaten bertan ere artatuko zaitu Zuatzu klinikako espezialista-taldeak, 20 urtetik gorako esperientzia duenak.

Ginekologia eta obstetrizia.
Jaio aurreko diagnostikoa.
Bularretako patologia.
Laguntza bidezko ugalketa.

Nafarroa Etorbidea, 4 (bajo)
20500 Mondragón
943 792 018


ZUATZU
KLINIKA

www.clinicazuatzu.com

emakumeentzako

JABETZE ESKOLA

» Udaleko Berdintasun sailak hainbat tailer eta ikastaro antolatu ditu udazkenerako



Emakumeen hausnarketarako eta formaziorako topagunea

Emakumeak beren eskubideen jabe egiteko, beren bizitzetan autonomia eta konfiantza izateko, eta beste emakumeekin sareak sortzeko espazioa da Jabetze Eskola. Emakumeen ahalduntze prozesuan eragitea da bere helburua, eta hori lortzeko asmoz, errealitatea ikuspegi feministatik aztertu eta berau aldatzeko tresnak jarri nahi ditu.

Ildo horretan, hainbat tailer eta ikastaro antolatu dira datozen hilabeteetarako. Ikus egitaraua. Ikastaroa hasi baino 8 lanegun lehenago eman behar da izena. Informazioa eta izen ematea: 943 78 04 11

egitaraua

1. ikastaroa: 'Zure emozioez jabetu'

Barne konfiantza indartzeko bidea egingo da, gure bizitzan motore den alde emozionala kontuan hartuz. Irakaslea: Aran Erasun. Urriak 13, 30 eta azaroak 6, 13, 20, 27. Euskaldun Berria gelan (14:00-16:00). Euskaraz. Matrikula: 10€



2. ikastaroa: Elektrizitate tailerra

Elektrizitatearen mundura gerturatzeko ikastaroa, emakumeen autogestio gaitasunean eraginez. Irakaslea: Paz Carbajosa. Urriak 22, 29 eta azaroak 5, 12, 19, 26. Gaztelekuan (18:00-20:30). Gazteleiaz. Matrikula: 10€.



3. ikastaroa: Dantza eta perkusio afrikarra

Ariketa aerobikoa izateaz gain, gorputza ezagutzeko eta norberaren bizipen eta sentimenduekin konektatzeko modu bat da. Irakasleak: Anne Agirre (dantza) eta Elena Santos (perkusioa). Urriak 30, azaroak 6, 13, 20, 27 eta abenduak 4, 11, 18. Eltzian (18:00-20:30). Gazteleiaz. Matrikula: 10€.



4. ikastaroa: Eskalada

(oinarrizko eta sakontze mailak)
Irakasleak: Ion Agirre ea Patri Espinar. Oinarrizko maila: azaroak 10, 17, 24 eta abenduak 1, 15, 22 (10:00-13:00); Sakontze maila: azaroak 9, 16, 23, 30 eta abenduak 14, 21 (18:00-21:00). Kiroldegian. Euskaraz. Matrikula: 10€.



5. ikastaroa: Autodefentsa feminista

(oinarrizko eta sakontze mailak)
Indarkeria sexistari buruzko bizipenak eta iritziak trukatzeko gunea. Tresnak eskainiko dira aurre egiteko. Irakaslea: E-magin. Oinarrizkoa: azaroak 17 (10:00-14:00 / 15:30-19:30); Sakontze maila: azaroak 15, 22, 29 (17:30-20:30). Euskaldun Berria gelan eta kiroldegian. Euskaraz. Matrikula: 5€.

ARANBURU ALTZARIAK

Kale Zaharra, 21
Kale Barria, 11
Lizaur A., 7
OÑATI
Tfnoak: 78 11 60 / 78 05 73

ESTILO
GUZTIETAKO
ALTZARIAK

LANPARAK,
TAPIZAK,
KORTINAK

Aran
Hernandez

Zure ETXEA eguneratu, guztiaren iberraketa
baita ez ezik bere salmenta eduki abakari erazteko

626 114 382

aranhernandez@aranhernandez.com



Oñatiko Euskaraldian izena emateko deia luzatu dute

Euskaraldia, 11 egun euskaraz 2018ko azaroaren 23tik abenduaren 3ra euskararen erabilera areagotzea eta hizkuntza ohituretan eragitea du helburu. Ekimena Euskal Herri osoan batera egingo da, eta 16 urtetik gorako oñatiarrak *Ahobizi* edo *Belarriprest* izateko konbitea egin dute.

IZENA EMATEKO MODUAK

Izen-emateko bi modu daude: online, euskaraldia.eus webgunean sartuta, edo herrian banatuko diren eskuorrien bidez. Formularioko datuak bete ondoren, eskuorria Udaletxeko sarreran, kultur etxean edo herriko hiru ikastetxeetan utzi behar da.

Parte hartzeko '*Belarriprest*' eta '*Ahobizi*' rola aukeratu behar da (Ikusi ondoko irudian erabakia hartzeko lagungarria izango zaizun informazioa).

HERRIXA KANTUAN BEREZIA

Urriaren 27an *Herrixa Kantuan* ekimenak Euskaraldiarekin bat egingo du. Herriko abesbatzetako kideek eta musikariek parte hartuko dute. Informazio-mahaia jarriko da plazan, eta *Belarriprest* eta *Ahobizi* moztarok ere ibiliko dira kalean.

Bestalde, urriaren 16 eta 25ean Euskaraldiari buruko informazio-bilerak egingo dira Euskaldun Berria gelan (Bidebarrieta, 18).



Aukeratu zure rola: Belarriprest ala Ahobizi

Txillardegiren omenezko plaka jarri dute Arantzazuko Milikua ostatuan

Oñatiko udalbatzak aho batez onartu bezala, Jose Luis Alvarez Enparantza 'Txillardegiren omenezko plaka jarri dute Arantzazuko Milikua ostatuaren atarian. Oñatiko udala da Txillardegiren lana aitortu duen lehen erakundea, eta urrats inportantea dela adierazi zuten Txillardegiren Gogoan Herri Ekimeneko kideek, Oñatiko esperientziak bide bat markatuko duelakoan.

Txillardegiren alargun Jone Forkadak ere eskerrak eman zizkion udalari eta Milikua ostatukoei, egun pozgarria zela adieraziz, senarrarekin batera Arantzazun igarotako une goxoak gogoratu ostean



EH Bilduko Otegi, Iriarte eta beste hainbat aurpegi ezagun izan ziren ekitaldian

'ORAIN PRESOAK'

Urriaren 20an Bilbon egingo den manifestazio nazionalera joateko deia egin dute

'Orain presoak' lelopean, espetxe politika aldatzeko garaia dela aldarrikitzeko manifestazioa egingo da urriaren 20an, hain zuzen ere ETAK jarduera armatuaren amaiera iragarri zuela zazpi urte beteko diren egunean. Presoen urrunketarekin amaitzea, gradu progresioa ahalbidetzea, zigorren batuketarekin amaitzea eta gaixotasun larriak dituzten presoek neurri humanitarioak aplikatzea eskatuko da. Oñatiko Sare plataformak dei egiten die herritarrei mobilizazioan parte hartzera.



Presoen eskubideak aldarrikatzeko irailaren 29an Oñatin egin zen ekitaldiko irudia



'Bidali'

Mezularitza arloko negozio berria jarri du abian BIDEBARRIK, TIPSArekin elkarlanean

Gizarte-bazterketa arriskuan dauden pertsonak, edo desgaitasun bat dutenak lan merkatu arruntera bideratzea helburu duen BIDEBARRI enpresak negozio linea berria ireki du, garraio urgentearen arloan. 'BIDALI' du izena aktibitate berriak, eta estatu mailako *Tipsa* enpresaren ordezkari izango da, Debagoiena, Urola Garaia eta Goierri eskualdeetan.

'Bidali'n lan egingo duten pertsonak biltegitratze sektoreko formazioa jasoko dute eta, hala, ate asko zabaltzen dituen aktibitatea dela uste du Jon Igartuak, Bidebarriko gerenteak. "Jasoko duten formazioarekin eta hemen hartuko duten esperientziarekin, mezularitza, biltegitratze edo banaketen alorrean kontratatu ahal izango dituzten profesionalak prestatuko ditugu"

Uztaila erdian jarri zen martxan 'Bidali' eta zazpi lagun ari dira bertan lanean lau furgonetarekin.

Bidebarri gizarteratze eta laneratze enpresa 1996an sortu zuten Oñatiko Udalak, Caritasek eta Jon Igartuak, egoera sozio-ekonomiko zailean dauden pertsonen laguntzeko lanaren bidez. Une honetan 32 langile ditu negozio linea ezberdinetan (vending-a, elkartetako garbiketak...).



Jose Luis Lazkanoiturbururi kalea eskaini diote Manisesen

40 urte luzez Manisesen egindako lana aitortuz, kalea eskaini diote Jose Luis Lazkanoiturburu (Oñati 1929 - Manises 2017) zenari Valentiako hirian.

Oñatiko agustinoen seminarioko arduraduna izan ondoren, 1968an norabide berri bat eman zion bere apaiz bizitzari Lazkanoiturburuk, eta Manisesera joan zen Anton Garairekin batera. Etorkinez betetako Barrio del Cristo auzoan jarri ziren bizitzen, eta herritarrak gertutik ezagutu eta haien konfiantza irabazteko asmoz, apaiz-langile bizimodua egiten hasi ziren, goizez eraikuntza lan eginez, peoi gisa, eta arratsaldetan parrokia atendituz.

Auzotarren mugimendu eta aldarrikapen ekintza askoren buruan egon ziren oñatiarrak. Dispentsario eta botikinak zabaldu zituzten, ekonomatoak, haurtzaindegiak, jostuntza tailerrak, helduentzako eskolak, gogoeta taldeak... Langileen eskubideak eta justizia soziala aldarrikatuz beti ere, eta herritarren arteko berdintasuna eta adiskidetasuna lortu nahian, hitzarekin eta ekintzarekin.

2017an Maniseseko Ohorezko Herritar izendatu zituen hango udalak, eta handik gutxira zendu zen Lazkanoiturburu, eta orain kalea eskaini diote bera bizi izan zen auzoan.



Gurasoen Mintegiak

Txantxiku Ikastolaren ikuspegi pedagogiko metodologikoaren gaineko mintegiak



Konfiantzaren Pedagogia: Marko Orokorra

Guraso guztientzat:
Konfiantzaren pedagogiaren iturriak eta oinarriak

Azaroak 8 eta 9an

0-3 urteko Haurren Mintegia

Haur Hezkuntzako lehenengo zikloko umeen gurasoei eta haurdun dauden gurasoei zuzendua.

Umeak bere beharrik komunikatzeko igaritzen dituen seinaleak hobeto ulerti eta erantzun egokiarekin erretzeko laguntzea dute helburu. Mintegiak hilean behin izango dira eta bi orduko iraupena izango dute (17:00etatik 19:00etara). Ikastolako arduradun pedagogikoak bideratuko dituzte. Mintegien kostua eta izen-ematearen inguruko informazioa idazkaritzan jaso dezakezue.

- **2018-10-26:** Biziaren lehenengo urteak. Eraritza biologikoa
- **2018-11-23:** Abuztuaren seme eta atakimendu motak
- **2019-01-18:** Banaketa, galera eta dolua
- **2019-02-22:** Mitzearen seme. Garapen kognitiboa
- **2019-03-22:** Mitzearen seme. Emari Pkllen ekarpenak
- **2019-05-24:** Hies egiteko seme, belduria eta eraso

Begirunezko Elkarbizitza

HH3tik LH6ra bitarteko gurasoei zuzendua.

Nola hitz egin gure seme-alabei entzun diezaguten? Nola entzun hitz egin dezaten?

Gure autoritatea mantendu, autoritarioa izan gabe.

Gure seme-alabekin komunikatzen ere ikasi daiteke!

Mintegiak hilean behin izango dira eta bi orduko iraupena izango dute (17:00etatik 19:00etara). Nerea Mandizabal psikopedagogo eta komunikazio ez bertitzean adituzaren gidaritzapean egingo dira. Mintegien kostua, datak eta izen-ematearen inguruko informazioa idazkaritzan jaso dezakezue.

PLAZA MUGATUA

EKI DBH Gurasoak

EKI Euskal Kurrikulumean oinarrituta, konpetentzien garapena lantzen duen metodologiaren eta baliabideen aurkezpena.

- **Urriak 17:** Zer da EKI? Egitasmo orokorraren aurkezpena
- **Urriak 24:** Material didaktikoa eta ingurune birtuala ezogutzea



Potx eta Lotx laster DVDan



» 'Herriko jaietan' ikuskizunaren DVDa grabatuko dute urriaren 14an Santa Ana aretoan

» *Crowdfunding* kanpaina bat jarri dute martxan, proiektua aurrera ateratzeko

Urte osoan zehar herriz herri plazaratu duten 'Herriko jaietan' ikuskizuna DVDan grabatuko dute Potx eta Lotx pailazoek. Oso harrera ona izan du ikuskizunak, asko gustatu zaio jendeari, eta orain DVD formatuan argitaratuko dute, etxean ere ikuskizunaz gozatzeko aukera izan dezagun.

Bi emanaldi DVDa grabatzeko

DVDa grabatzeko zuzeneko bi saio eskainiko dituzte urriaren 14an, Santa Ana aretoan, 16:30etan eta 18:30etan. Beraz, animatu egiten dituzte herriko haurrak eta gurasoak saioa ikustera eta DVDan parte hartzera. "Aretoa pailazo txikiz beteko balitz, zoragarria litzateke, kolorea eta bizia emateko ikuskizunari" esan digute Potxek eta Lotxek. Sarrerak 3 € balioko du.

Crowdfunding kanpaina

DVDaren grabaketa finantziatzeko (kamerak, pertsonala, aretoa,...) *crowdfunding* kanpaina bat jarri dute abian Verkami plataformaren bidez. 8€-tik gorako diru ekarpenak egin daitezke bertan, eta opari ugari jasoko ditugu, egindako ekarpenaren arabera: grabazio saiorako sarrerak, DVDa (grabatu ostean), CDa, motxilak, posterrak, txapak, Potx eta Lotxek girotutako merendolak, ikuskizun pribatuak... Ez galdu aukera!

OPARI UGARI



Grabazio saiorako sarrerak, grabaketa eguneko VIP bisitak, DVDa (grabatu ostean), CDa, motxilak, posterrak, txapak, Potx eta Lotxek girotutako merendolak familia osoarentzat, ikuskizun pribatuak nahi duzun lekuan... Ez galdu aukera eta parte hartu *crowdfunding* kanpaina honako helbidean:

<http://vkm.is/potxetalotx>



Gasteizko jaietan eskainitako saioaren irudia

URTEBETEKO IBILBIDE OPAROA

lazko abenduan ekin zion bideari Potx eta Lotx pailazo bikote oñatiarrak 'Herriko festetan' ikuskizuna eta izen bereko CDarekin. Eta geratu ere egin barik ibili dira ikasturte osoan zehar; San Ferminetan eta Gasteizko jaietan izan ziren, eta baita beste herri eta auzo txiki askotan ere. Oso gustura daude jasotako harrerarekin, eta dagoeneko ikuskizun berria prestatzen ari dira. Zuzeneko emanaldiez gain, tailerrak eta clownferentziak ere ematen dituzte, pailazogintza eta clownaren unibertsoa gizarteratzeko asmoz.

EGUR-LAN
ARROZTEGIA
UNABAR S.A.S.L.
BEREZAO INDUSTRIALDEA 20560 OÑATI (GIPUZKOA)
TEL./ FAXA: 943 78 14 59 | linabarsal@gmail.com
www.egur-lan.es

smk
san miguel kooperatiba
943 781 217
kale barria 8 - 20560 oñati
www.sanmiguel.coop

IKASTAROAK 2018/19 OÑATI LANERAKO PRESTAKUNTZA %100 DIRUZ LAGUNDUTA

IKASTAROA	KODEA	ORDUAK	AURRE IKUSITAKO DATA
LANGILEENTZAT LEHENETSIK			
Txirbil harroketa bidezko prozesuak	MF0089_2	100	Urria 2018
Txirbil harroketako makina eta sistemen prestaketa eta programazioa	MF0090_2	260	
LANGABEENTZAT LEHENETSIK			
Fabrikazio mekanikoko eragiketa osagarriak	FMEE0108	400	Urria 2018

OHARRA: Ikastaroen hasiera datak partehartzailleen izen-ematearen arabera aldatu daitezke.

Izen-Ematea:

IES R.M. ZUAZOLA-LARRAÑA BHI

LARRAÑA Lanbide Heziketa egoitzan

Larraña auzoa, 16

Tel.: 943 78 21 50 / 688 658 016

harrera@onati.net

www.onati.net



Kontzejupetik



ARGITARATZAILEA: Oñatiko Udala

ZUZENDARIA: Iñigo Arregi

PUBLIZITATEA: Aratz Losada

DISEINUA ETA MAKETAZIOA:

Aratz Losada

KOLABORATZAILEAK: Jerardo Elortza

eta Udal Euskaltegia

INPRIMATEGIA: Gertu

Tirada: 5.500 ale

Lege gordailua: SS-357/91

Posta-e: kontzejupetik@onati.eus

Publizitatea: publi@onati.eus

Bidaurreta Dorrea, Olakua zuoa

20560 Oñati (Gipuzkoa)

Tel.: 943 78 20 72

Kontzejupetik aldizkariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

GUTUNAK

Atal honetan, gutunek ezingo dute 1.800 baino karaktere gehiago izan. Aldizkariko erredakzioak eskubidea izango du gutunak laburtzeko. Gutunarekin batera igorleraren izen abizenak eta harremanetarako telefonoa bidali behar dira. Gutunak, egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira.

Bidaurreta Dorrea z/g • 20560 OÑATI | Tel.:943 78 20 72 | Posta-e: kontzejupetik@onati.eus

Udalaren ardura, tabernen Ordenantza betearaztea

Kalezaharreko bizilagun taldea: Amasorrain, M^a C.; Arkauz, J.; Arregi, I.; Arregi, X.; Betitia, M.; Elortza, I.; Elortza, J.; Larrañaga, J.; Ruiz de Azua, L.

Kalezaharreko bizilagunek osatzen dugun taldearen izenean, zenbait ohar/eskaera luzatu genizkion uztailean Udalari Ostalaritza arautuko duen Ordenantza berriaren gainean, abian jarri zuen kontsulta publiko irekia baliatuz. Udaleko alderdi bien ika-miken gaintetik geure iritzia azaldu nahi dugu, labur labur.

Oro har, intentzio ona ikusten dugu Udalaren partetik ostalaritza jardueren erregulazioa arautu eta gauzatzeko, baina gure ustez, Ordenantza intentzio horretan geratzen da. Udal gobernu honek eta aurrekoek ere, ez dute bere Ordenantza betearazi. Hemen dago gakoa. Araua ez da betetzen ezta betearazten ere.

- Tabernetako musikaren bolumena ez da kontrolatu, nahiz eta sistema ezberdinak probatu eta erabili. Taberna bakoitzak nahi duena egin du. Batzuk besteak baino gehiago.

- Ateak zabalik egoten dira nahiz eta ate dobleak eduki.
- Itxiera orduak ez dira errespetatzen. Taberna guztiak ez era berean.

Egoera honen aurrean zer dio Ordenantza berriak? *“Udal honek, dagokion Ikuskatze Zerbitzuaren bidez, zaindu eta bermatuko du baimenen titularrek behar bezala betetzen dutela Ordenantza honetan zehaztutako guztia.”* (12. Art) Ez du nola egingo duen zehazten, bi hitzetan esanda. Eta gure ustez, Udalak egin beharreko ikuskatzea eta zaintza jarduera Ordenantzaren jasota egon beharko luke. Guk badakigu isunekin ez dela arazoa konpontzen, ezta bizilagunen bizkarrean utzita ere ikuskatzea, zaintzen ibiltzea eta kejak inpintzea. Udalak betearazi behar du bere Ordenantza, hori da bere ardura.

Ordenantza indarrean jarri ondoren, Udalak txkeoa eta ikuskapen formala egin beharko luke tabernetan banan bana: insonoritatea ondo dagoen ikusi, bolumena kontrolatzeko makinak aztertu, ateen egora ikusi... eta gero, arauak ondo betetzen diren ikuskatu eta zaindu. Egokia ikusten dugu, aztertu dugun beste herrietan egiten den bezala (Bilduko zein EAJko alkateak izan), Udaltzaingoak

ikuskaritza eta zaintza bere gain hartzea, asteburuetan eguneko eta gaueko zerbitzua sortuz. Ez soilik ostalaritza eta aisialdi-jarduerak zaintzeko, herriak dituen beste behar batzuei erantzuteko ere.

Udalari aurkeztu genizkion era batera edo bestera eskutitz honetan esandakoak eta esan genion prest geundela eman beharreko zehaztasunak argitzeko ere. Bakoitzak dugu geure ardura. Udalarena bere Ordenantza betearaztea da eta nola betearaziko duen adieraztea.

PNV: iruzurra, inposaketa eta, gainera, errepresioa

Eñaut Uribesalgo, Ekiñe Arkauz, Garazi Gotia eta Xabier Etxebarria

Irailaren 23an Zubietako errausegiko Lobretara martxa bat antolatuz Gupuzkoa Zutik mugimenduak, soilik gutxi batzuen interesei erantzuten dien makroproiektu hori beste behin salatzen. Oñatiar talde bat ere bertan izan ginen, Gipuzkoako txoko desberdinetako herritar gehiagorekin batera.

Obretara iritsi ginenerako, Ertzaintzaren dispositibo itzela

Catalana Occidente **Mikel Egaña Urrutia**
Aseguratuak

Eskatu aurrekontua kompromezu gabe:

- ↳ Heriotza
- ↳ Autokak
- ↳ Biltza
- ↳ Istripuak
- ↳ Ontziak
- ↳ Osasuna
- ↳ Etebiziak
- ↳ Aurremia
- ↳ Laborantza

Hilabete Nazioarteko, behar
508 76 79 04
mikalagana@egantxa.coibiberoccidente.com

Almaraz
Inmobiliari gestioa

Carmelo Pérez de Almaraz

"Gure bezeroen eskari eta beharrei erantzun nahian, etxebizitza, lokal, garaje, baserri, lursail edo pabilioi bat saldu edo alokatu nahi baduzu, dei diezaguzu".

Tel.: 679411444
www.almaraz.info

genuen zain, sarrera blokeatzen. Eta hortxe gelditu ginen zain, gure aldarrikapenak oihukatuz. Horrelako batean, ez dakigu zergatik (inork ez baitzuen beraiek markaturiko perimetroa pasatu), zoroaren pare hasi ziren jendea jipoitzen eta bertatik joateko esaten. Adin guztietako jendea (kazetariak barne) kolpatu zuten inongo konplexurik gabe, eta karga horrek hainbat zauritu utzi zituen. Tartean, bi oñatiar. Okerragoa ere izan zitekeen, horrelako eremu menditsu batean jendea bultzadaka lurrera botatzen eta porrarekin jotzen hasteak ondorio lazgarriagoak izan zitzaizkeen eta. Izugarritzko arduragabekeria.

Ikusten da PNVk ez duela nahikoa erraustegia inposatu izanarekin. Orain gure aurkakotasuna adierazten ere ez digu utzi nahi, eta inongo eskrupulurik gabe bidaltzen du bere polizia protesta egiten dutenak jipoitzera. Benetan lotsagarria izan zen egun horretan ikusi genuena. Noraino iristeko gai zarete?

Konpostagarriak ez diren poltsetan ateratzen diren kubo marroiak jaso gabe utziko dira

Debagoieneko Mankomunitateak ohar bat kaleratu du herritarrei gogorazteko hondakin organikoen kubo marroia poltsarik gabe edo poltsa konpostagarria jarrita bakarrik atera daitekeela. Konpostagarriak ez diren plastikozko poltsarekin ateratzen diren ontziak jaso gabe utziko dira, hondakin organikoen konpostatze prozesua eragozten dutelako. Arduraz jokatzeko mezua luzatzen die Mankomunitateak herritarrei.

SALAKETA

Azken hilabeteotan birritan agertu da apurtuta San Julian baserrirako bidean, Bakueko bidegurutzean, dagoen bide-seinalea.

San Juliango bizilagunak berak ipinitako seinaleak ziren, bata egurrezkoa, bestea burdinezkoa, bere poltsikotik ordainduta, urgentziaren bat gertatuz gero larrialdi zerbitzuetakoek garbi ikus dezaten zein den San Julianera iristeko bidea, lehenago gertatu izan baita anbulantzia bidean galduta ibiltzea.

Beraz, bide-seinalea errespetatzeko deia luzatu nahi dugu lerro hauetatik.



OHARRAK, DEIALDIK ETA AZKEN ORDUKOAK



Igor Biain nagusi bolajokuan

Lau txirlo botata eta desberdinketa jokatu ostean Igor Biain nagusitu zen herriko bolajoku txapelketan. Mikel Zubiagirre sailkatu zen bigarren, eta Andoni Narbaiza hirugarren hiru txirlorik. Kurtze Baltzek antolatuta, 85 bolarik parte hartu zuten.



Herriko MUS txapeldunak

Fernando Erostarbe 'Ubao'k eta Juan Mari Elortza 'Rubio'k irabazi zuten irailaren 22an jokatu zen San Migeletako X. Mus Txapelketa. Txapela eta garaikurrak gain, 800€-ko saria eta lehen bikote oñatiarrarena (200€) jaso zuten. Danera 44 bikotek parte hartu zuten.



Berakatz-zopa goxoenak

Ainhoa Anduagak ea Aitzol Gandiagak irabazi zuten jaietako berakatz-zopa lehiaketa (200€). Bigarren saria (100€) Angel Billar eta Juan Mari Urteagarentzat izan zen. Bederatzi bikotek parte hartu zuten.

GARBIKETA ADMINISTRAZIOA ETA KONPONKETAK

- Era guztietako garbiketak
- Jabegoen eta elkarteen administrazioa
- Konponketa orokorrak



653 70 45 47
Oñati

PINTURAS
URBIA
MARGOAK

Arantzazuko Ama, 19A - 1A • 652 71 08 37 eta 943 71 62 15



HAUR ETA GAZTERIAREN INGURUAN ...

#izarogaztelekuan – izango dugu urriaren 13an, ez galdu aukera! oraindik sarrerak daude.

#sormendirulaguntzak - Gazte elkarten sustapenerako, eta musika taldeen CD grabazioetarako, diru-laguntzen bigarren epealdia urriaren 15etik azaroaren 10 izango da!

#emantzipaziodirulaguntzak - Emantzipazio diru-laguntzak eskatzeko epea urriaren 16an bukatzen da, arratsaldeko 14:00etan, beraz kontuz eta denboraz ibili!!

#GO-AZEN 5.0 -Denboraldi berria: Aurre estreinaldia izango da aurten ere Gazte-lekuan, azaroaren 4an GO!AZEN 5.0ko lehenengo kapitulua eskusiban ikusteko aukera izango dugu.

#GO-AZEN 5.0 - Denboraldi berria: Abenduaren 9an berriz, GO-AZEN 5.0ko aktoreak Gaztelekuan izango ditugu, denboraldi berriko antzerkia eskaintzen, 2 emanaldi aurten ere.

#igandemusikalak – Adi musikazale, Gaztelekuan igande eguerdian programatzen hasiko gara! Musika berezi ezberdinak dastatzeko aukera izango da!

#Lenaogaztelekuan - Oñatiko taldea bere bigarren diskaren aurkezpen biran da, eta abenduaren 16an, biraren bukaeran, Oñatiko Gaztelekuan taldea ikusteko aukera izango dugu.

#udabidai - Topalekuko Gazteak 2019ko udarari begira dagoeneko! Ametsak lortzeko aukera!

#sotogurasoak – Jarraitzen dugu Gaztelekuko Sotoko arauak bete daitezten lortu barik, eta horiek bete arazteko arduradunak gurasoak zarete. Neurri zorrotzagoak hartu beharko ditugu?

#parkour – zaletasuna dago gure gazteen artean, animatu urriaren 20an antolatuko dugun txapelketan parte hartzen!

#ibarra – Ibarran egokitzen ari den jolas gunean, parkourra praktikatzeko gune batekin osatuko ote den entzun dugu, ona!

#arimengaua – Gurekin arratsalde beldurgarria pasatzeko prest? Felix a etorriko da berriz?

#ongietorrista – egingo dugu urriaren 19an Gaztelekuko kuboko txikientzat, LH3koentzat!

#errekagarbi – aizu gazte, urriaren 14an gure erreken garbiketan parte hartu!

#xake – Aurten ere Gaztelekuko xake txapelketa izango da udazkenean, eta honekin 24 urte jarraian goiaz xakea bultzatzen!

#Txorimaloak – gai honen inguruan agente ezberdinok hausnarketa txiki bat egin beharko genukeela uste dugu.

#jostailutruke – Kontsumismoari aurre egin! Aurten ere Gabonen aurretik bigarren eskuko jostailu azoka antolatuko dugu, bai horixe!

#ludoteka – Denboraldi berria, ilusio eta aurpegi berriak, etorri gurekin jolastera eta ondo pasatzera, Ludotekan urte osoan ate irekiak!



Titulu akademikoak eta arduradun politikokoak

Aspalditxoan ikusten ari gara, handik eta hemendik, zenbat arduradun politiko nahastuta agertzen ari direla titulu akademiko faltsu, kalifikazio akten aldaketak, plagioak, eta beste pribilegio batzuk direla medio.

Egungo gizartean, hemen behintzat, Europako hainbat herrialdeetan ez bezala, titulu akademiko bat edukitzeari gehiegizko garrantzia ematen zaio. Baina titulu bat edukitzeak ez du esan nahi derrigorrez zerbeitetan aditua zarenik.

Luis Guridi



Eta alderantziz, hainbat gauzetarako benetan prestatuak dauden titulu gabeko makina bat pertsona aurkitu ditzakegu. Prestatuta bazaude, gai izango zara titulu bat ateratzeko, baina kontrakoa ez da betik egia.

Zergatik orduan hainbeste tranpa curriculumetan politikarien aldetik, zergatik tituluz beteta daudela jakinarazteari hainbeste garrantzi?. Horrekin nahikoa dela uste dute kargu publikoetan egoteko gaitasunak dituztela frogatzeko?. Arduradun politikoa izateko ez litzateke ezinbestekoa izan behar titulu

akademikoa, beste balio batzuk edukitzea baizik, eta horien gabezia da argi utzi dutena zenbait agintarik azken eskandaluekin. Negozio bezala sortu diren gradu-ondoko ikasketaz eta instituzio akademikoaz baliatuz, ez dute inongo erreparorik izan besteak esfortzu handiz lortutakoa opari lotsagarri bezala eskuratzeko.

Arduradun politiko izateko, kudeaketa publikoa ondo egin ahal izateko, prestatuta egon behar da, profesionalki kompetentea izan behar da bere esparruan. Baina hori ez da nahikoa, gainera balio etikoak izan behar ditu, zuzentasuna, gardentasuna, zintzotasuna, errespetua, gizartearekiko konpromisoa, etab. Zoritxarrez, balio horiek ez dira gehienetan unibertsitateko ikasketetan ikasten, ez datoz titulu akademikoari erantsita.

Nor naiz ni?

A dituek esaten dute, pertsona guztiak, batez ere adinekoek, etorkizuneko proiektu bat izan behar dutela. 'Nora noa?' Eta egi-egia da.

Eta proiektu hori zuk zeuk markatu behar duzu, ez beste inork. Ume garaian guraso edo tutoreek gidatzen zaituzte, baina adin batetik aurrera, zeurea da erabakia.

Hirurogeita hamar urte beteta, gauza bera gertatzen zait. Mallorcan pasatu ditudan egunetan, gogoeta egiteko aukera izan dut (Arabako Errioxa gogora ekartzeko zidaten mahats-parrei begira) eta ondorio honetara iritsi naiz: aldaketa sakonak bizi izaten ari naizela, fisikoak, kimikoak, emozionalak eta sozialak ere bai.

Gorputzez ez naiz pertsona bera; nire bisagrek (belaunek) ez didate uzten orain dela hamar-hamabost urteko erraztasunarekin ibiltzen, eta nire mugikortasuna neurri handian mugatu da.

Fernando Mendiguren



Gorputzaren kimika bera ere ez da lehengoa; adinekoen 'usain' txarra botatzen hasi omen naiz, nire emazteak dioenez, eta egunero (batzuetan bi aldiz) dutxatu behar izaten dut.

Sentimenduak. Umeez ari garenean, batzuetan negar malkoak ateratzen zaizkit, eta berdin hunkitzen naiz gure aberriaren eskubideetan aurrera egiten dugun neurrian. Euskal Herri nireari diodan maitasunaren ondorioa.

Inguruan bilobak ikusteak emozioz betetzen nau, gure herriaren poza eta etorkizuna direlako. Eta berdin, ikusten dudanean beste entitate batzuk urratsak ematen, izateko erari inportantzia ematen, eta ez hainbeste edukitzeari.

Gaurko gizartearen jendetasun edo soziabilitateak kezkatu egiten nau.

Gizartea aldatuz doa ziztu bizian; hirurogeita hamar urtekoak ez gaude ohituta gaur egungo bizimodura. Unibertsitate Duala ezagutu berri dut eta, egiari zor, gizartea asko aldatzen ari da. Eta aldaketa hauek herritarra izan beharko lukete erdigune, garapen pertsonalera-ko aukera eta tresna gehiago eskainiz, baina, nire uste apalean, materialismo gordinera zuzenduta doaz, alderdi humanistiko eta soziala ahaztuz.

Proiektua, bai, noski. Nire proiektua zuzenduta dago une bakoitza bizi izate- ra; eguna, ordua, segundo oro, nire esperientzia ondorengoei uzteko asmoz, beraiek ere goza ahal izan dezaten bizitza honetaz.

Irakurri eta idatzi zalea naiz. Mario Vargasen *Travesuras de una niña mala* irakurri berri dut, eta gomendatzen dizuet. Hasi orduko harrapatzen zaitu. Nire bizitzako oroitzapenak idazten saiatzen ari naiz. Haurtzarotik gaur artekoak. Zaila, baina, niretzat, ariketa zoragarria.

 **ZURICH**

M^a del Mar Urrutia Negueruela

Motxon Kalea 5 behea
Tel/Faxa: 943 78 30 09 • Mugikorra: 620 77 66 20

HARALD LINDER

ETXETAN ERA GUZTITAKO KONPONKETAK
PERSIANAK, LERRIAK, UBU FLOTANTEAK, ARGIK, PINTURA LANAK...



BIHEMATZAILA ETA MONTATZAILA
SUKALDEAK, BERRIJANA eta ASKOZ GEBANCO
OLAJUA 12 B 4 ed. - 20600 ONATI - GIPUZKOA
695 78 91 04 - 943 04 47 77

Omenaldi ugari jaso dituzu azkenaldian. Azkena, herriko igerilari ohiek eskainitakoak. Ia 200 lagun elkartu ziren. Bistan da jendeak maite zaituela.

Esker oneko hitzak besterik ez daukat. Oso ondo antolatuta egon zen, aspaldiko lagun asko bildu ginen, eta oso hunkigarria izan zen.

Entrenatzaile ardura utzi duzu, 33 urteren ostean. Zertan aldatuko da zure egunerokoa?

Lanean jarraitzen dudan bitartean, entrenatzaile berriari (Josune Odriozola) laguntzen jarraituko dut. Beraz, astegunetan ez da askorik aldatuko, goizeko 6etan entrenatzera etortzen jarraitzen dut, baina asteburuak behintzat libre izango ditut, eta hori gauza berria da niretako.

33 urte entrenatzaile lanean, ia ia musutruk. Nekez aurki daiteke gaur egun halako konpromiso maila.

Masokista batzuk badaude oraindik, baina gero eta gutxiago. Gainera, urtea oso luzea egiten da igeriketan. Iaz, adibidez, uztaila erdian amaitu zen denboraldia, eta irailan hasi gara berriro. Konpetizioak ere asko luzatzen dira, asteburu osoa baztuetan, eta ia egunero entrenatu behar da. Egia esan, erretzeko modukoa izaten da igeriketa.

Baina zuk hor jarraitu duzu. Bai, nire zainetan kloroa dagoelako. Hauxe da nire

ELKARRIZKETA
XABIER INFANTE 'Artza'
ALOÑAKO IGERIKETA SAILEKO ENTRENATZAILEA

33 urteko ibilbideari AGUR

Profesionalki datorren urteko ekainean hartuko du erretiroa Xabier Infante 'Artza'k (Gasteiz, 1956), baina, aurten, Aloña Mendiko igeriketa saileko entrenatzaile izateari utzi dio, 33 urteko jardunari amaiera emanez. Erraz esaten da, hiru hamarkada, baina horren atzean konpromiso eta sakrifizio handia dago, eta halaxe aitortu eta eskertu dio jende askok Artzari, azkenaldian han-hemenka jaso dituen omenaldietan.



habitat naturala, eta ez dut sekula zalantzarik izan.

Entrenatzaile bezala ezagutu zaitugu guk. Nola moldatzen zinen igerian, konpetizioan?

Vasco-Navarro txapelketa irabazi nuen 12 urterekin, 50 Bularrean, eta Espainiako txapelketan 3. sailkatu nintzen.

Lehiakorra nintzen bai, baina kontuan hartu behar da, orduan lau katu ginela; Gasteizen, Bilbon eta Iruñean klub bana besterik ez zegoen. Gipuzkoan hori ere ez.

Beharbada, askok ez dute jakingo errugbian ere aritu zinela.

Bi errugbizale amorratu genituen kuadrillan eta beste kuadrilla batzuekin elkartuta, Kirrinka taldea sortu genuen. Bost urtez ibili ginen lehian. Txarrak ginen, baina oso giro ona genuen eta gustura ibiltzen ginen.

Nola iritsi zinen Oñatira? Magisteritza ikasi nuen, baina igeriketa nuen gustuko, eta Jaurilaritzaren bidez Oñatiko kiroldegian lana egitera etortzeko aukera sortu zen. "Nora zoaz? Burutik jota dauz" eta halako batzuk entzun nituen, baina nik aurrera. Aurretik Errezilen egona nintzen urtebetez, euskara ikasten, Gipuzkoa sakonean; beraz, proba guztiak gaindituak nituen.

Josune Odriozolaren esku utzi duzu igeriketa saileko

    	<p>• GALDARAGINTZA - CALDERERIA Otatul zuhaztza, 25 • Tel.: 943 71 63 50 www.caravanasonate.com</p> <p>• BIZIKLETAK • ERREMOLKEAK • TXIRRINDULARITZARAKO OSAGARRIAK Otatul zuhaztza, 25 • Tel.: 943 78 05 65 Atzeko kale, 32 (erakusketa)</p>
---	---



Josune Odriozola aukerako pertsona da igeriketa taldeko entrenatzailea izateko; Formazioa dauka, goi mailan aritu da, kluba ondo ezagutzen du...

prestatzaile kargua.

Bai, eta konfidantza osoa dut beragan. Urte asko eman ditu igeriketan, Espainiako txapeliduna izan da, oso pertsona positiboa da, nortasuna ere badauka, eta, gainera, SHEE/IVEF ikasi du; beraz, uste dut pertsona egokia dela horretarako.

Ze aholku eman diozu?

Ezta batere. Bere estiloa markatu behar du. Ni laguntzen egongo naiz, eta hila-bete batzuk barru, nahi badu, eseriko gara, aztertuko dugu egoera eta emango diot nire iritzia. ■



Angel Barrena

Josune Odriozola izango da entrenatzaile berria.



Igerilari garaiko oroitzapen onak ditu Artzak.

ZUBIKOA BERRIA

9 kale izango ditu igerileku berriak

Atzerapenik ez bada, datorren urteko ekaina aldera hasiko dira Zubikoa kiroldegia eraberritzeko lanak. Besteak beste, 9 kaleko igerilekua gaur egun 5 kale ditu) egokituko dute, eta igerileku txikiaren azalera ere ia bikoiztu egingo dute 12x6-tik 20x8-ra pasatuz. "Borroka latza izan dugu hau lortu arte, baina azkenean aurrera doa, eta lanak txukun egiten badira, polita geratuko da" adierazi digu Artzak; "9 kaleko igerilekua, oztopo arkitektoniko barik, armailekin, putzu txikia ere handituko da, energetikoki eraginkorragoa izango da... Bazegoen beharra, egia esan, eta uste dut oso positiboa izango dela. Kirolean inbertitzea osasunean inbertitzea da".

Obrak dirauen bitartean, igerilekua itxita egongo da urtebetez, gutxienez. Tarte horretan ezin izango da igeriketa ikastarorik antolatu, eta igerilari federatuei dagokienez, aukerarik onena Legazpiko igerilekura jaotea izango dela uste du Artzak, orduerdi dagoelako autobusa bertara. "Nire ideia da hori, baina oraindik landu egin behar da direktiba mailan eta udalarekin".

► TXIRRINDULARITZA

Garazi Erostarbe, Espainiako azpitxapeldun



Garazi Erostarbe txirrindulari oñatiarra bigarren sailkatu zen Sorian jokatuako gazte mailako Espainiako txapelketan. Lasterketa (77 km.) hasi orduko ihes egin zuen hirukote batek, tartean Erostarbe, eta helmugaraino iritsi ziren. Maria Banlles kataluniarra izan zen azkarrena, eta Ana Monfort aragoiarrak osatu zuen podiuma.

► ATLETISMOA

Oñati-Arrasate lasterketa urriaren 27an

Hiru hamarkada luzez Arrasate eta Oñati artean jokatu den lasterketak etapa berri bati ekingo dio aurten. Arrasate Euskaldun Dezagun taldeak antolatuta, Oñatiko plazan hasi eta Arrasatekoan amaituko da. www.berrikrosa.eus atarian eman daiteke izena (12€) bezperara arte.

► PILOTA

Zumalde-Usandizaga eta Arabaolaza-Anduaga nagusi



Harmailak lepo beteta jokatu ziren Gaztetxeak eta Aloña Mendik antolatzen duten herriko pilota txapelketako finalak. Emakumezkoetan 22-8 irabazi zuten Zumalde-Usandizagak Sagarzazu-Urangaren aurka, eta mutiletan 22-21 Arabaolaza-Anduagak Ibarzabal-Murgiondoren aurka

Lope Agirre Oñatira itzuliko da

**LPM taldeak grabatu duen 'Lope Agirre' filma
urriaren 27 eta 28an estreinatuko dute**

Oñatiko herriaren independetzia berreskuratzeko asmoz, 2019ko udal hauteskundeetan atarian Lope Agirre Oñatira itzuliko da eta Marañoien taldea eratuko du. Horixe da Oñatiko LPMk grabatu duen filmaren sinopsia.

Oñatiko Laburmetrai Rallyan parte hartzeko sortu zen LPM taldea orain dela zazpi urte, eta ordutik hona 15 laburmetrai aurkeztu dituzte lehia-keta ezberdinetan (Oñati, Eskoriatza, Aretxabaleta, Durango, Lekeitio...). Beti ere helburu garbi batekin: lagunartean ondo pasatzea eta istorio dibertigarriak sortzea, autozentsura barik, eta garrantzia handiagoa emanez istorioari, alde teknikoari baino.

40 MINUTUKO FILMA

Oraingo honetan, baina, ur handixeagoetan murgildu dira. Lope Agirrerri buruzko laburmetraia egiten hasi ea 40 minutuko filma osatu dute. Oñatiar konkistatzaile ezagunak 1561ean burutu zuen 'El Dorado' espedizioan munduko pertsona



la 100 herritarrek parte hartu dute filmean; 70 lagunek antzezle lanetan, eta 20k arlo teknikoan



boteretsuena zen Felipe IIa Espainiako erregeari idatzi zion eskutitza gogora ekarri nahi izan dute. Benetan gertatu zen pasarte historiko bat oinarri hartuta, fikziozko pelikula zoro bat egin dute, XVI. mendeko espedizio hura 2019ko udal hauteskundeetara ekarrita.

Istorio dibertigarria, pikantea eta zentsura gabekoa da, LPM taldearen oinarritzko esentziari eutsiz. LPMko kideez gain, herritar ugari parte hartu dute filmean (ia 70 antzezle eta beste 20 alor teknikoan.

ESTREINALDIA

Antixena gaztetxea izan da operazio zentroa (barrualdeko sekuentzia gehienak bertan grabatu dituzte) eta gaztetxean bertan egingo dute aurre-estreinaldia urriaren 27an (22:39), Lope hil zuten eguna gogora ekarriz. Emanaldi horretara sartzeko lehenasuna izango dute parte hartzaileek. Hurrengo egunean, urriak 28, emanaldi publikoa egingo dute Santa Ana aretoan, 17:00etan. Beharra balego, beste emanaldi bat egongo litzateke 18:30etan.

ANE MERTZERIA

- Josteko zerak
- Lentzeria
- Urmoon jantziak

Kale Barris, 54 OÑATI

Cartonajes Arregui, S.A.

- Kartoi ondulatuaren fabrikazioa
- Enbase eta enbalajeen fabrikazioa

Goribar auzoa. Tfnoak: 78 05 59 / 79 05 09
Faxa: 78 30 94. 79 Posta Kutxatila. OÑATI



PROMOZIO BERRIA!
30 etxebizitza
(2-3-4 logeekin)

egaratur
Construcciones | Eraikuntza Lanak

Informazioa: **689 420 761**

7 AS etxebizitza dagokor itegiak

Argazkiak: Argazkiak, Argazkiak, Argazkiak, Argazkiak, Argazkiak



Mekalki
S. Coop. **mekanizatuak**

Bi hitz baino ez, urtemuga berezi honetan

ESKERRIK ASKO!

Tel.: 943 78 19 11 | www.mekalki.es



“ Hurbildu liburutegira beldur barik, eta galdetu, eskatu, proposatu, kritikatu, parte hartu, gomendatu, gozatu... komunitatea sortu

Liburutegien Nazioarteko Eguna ospatzen da urriaren 24ean

Udal liburutegiko zuzendari Arantzazu Ibarrodok eman digu egun horretarako antolatu dituzten ekitaldien eta ikasturte berrirako dituzten egitasmoen berri

Badator liburutegien eguna. Zein mezu zabaldu nahiko zenuke egun horri begira?

Liburutegiak atek zabalik dituela beti herritar guztientzat. Beraien proposamenak entzuteko prest gaudela eta beraien beharrak betetzen saiatuko garela beti. Liburutegia guztiona dela, adina, arraza, sexua, erlijioa, nazionalitatea, hizkuntza edo gizarte-maila edozein izanda ere.

Denontzat dago lekua eta denon artean kultur gune bizia izatea lor dezakegula. Hurbildu zaitezte liburutegira beldurrik gabe, eta galdetu, eskatu, proposatu, kritikatu, parte hartu,

gomendatu, gozatu, azken finean, komunitatea sortu.

Azkenaldian ahalegin berezia egiten ari zarete komunitate hori sendotzeko asmoz. Nola erantzuten du jendeak?

Azken urteotan, zorionez, gero eta proposamen gehiago ari gara jasotzen. Horren lekuko: umeen 'Ipuin ibiltaria' eta 'Panpinen Pijama festa'; orain dela bi urte egin genuen 'Euskal herriko indarkeria politikoaren biktimei buruzko literatura tailerra', eta laster martxan jarriko dugun 'Psikologia lantegia'.

Hala ere, komunitate hori sen-

Udal liburutegiko atek herritar guztientzat zabalik daude

dotuz joan behar dugu eta horretarako herritarren beharrak eta ideiak nahi ditugu entzun. Irakurzaletasuna eta irudimena piztu behar dugu eta gizarte aske eta kritikoa osatzen lagundu. Helburu hauetan, liburutegi publikoek izugarriko garrantzia dute; haiek eman ohi dute gizarte baten maila.

Egitarau polita osatu duzue liburutegien egunaren harira. Azpimarratzekoa, Joxan Artze zenaren omenez egingo den ekitaldia.

Euskal kultura barruan horren garrantzitsua izan den idazle, kultur sustatzaile eta ekintzaile usurbildarraren irudiaz eta obraz gozatzeko ekitaldi bat egin nahi genuen. Arantzazuko gainari bazion Joxanek estimu berezia. Goiko Benta-n egiten zuen bere

“ Irakurzaletasuna eta irudimena piztu behar dugu, eta gizarte aske eta kritikoa osatzen lagundu. Eta zeregin horretan izugarriko garrantzia dute liburutegi publikoek

egonaldia zetorren bakoitzean, eta bazuen bertako ostatuko familiakoekin harreman estua.

Horregatik, Goiko-Benta, toki berezi bihurtu nahi dugu, ostatuak berak erakusten duen harre-
ra goxo eta samurra, udazken
giroan, poesiaren, musikaren eta
jendearen elkarrekintzaz gozatuz.

Bertaratzen direnek bertako egongelan edari bat hartuz, emanaldi fina dastatzeko aukera izango dute. Mixel Ducáu eta Andoni Salamerok eramango dute emankizunaren gidaritzaz, Artzeren olerkiak irakurri eta haren kantak abestuz, baina baita ikusle-go-entzulegoaren esku hartzea bilatuz, batez ere, Mikel Laboa eta beste kantari eza-
gunen abestiak kantatzen dituz-
tenean. Beraz, urriaren 19an (19:00) oñatiarrek hitzordua dute Arantzazuko Goiko Bentan.

**Tertulixan saio pare bat ere antolatatu dituzue, gaztelaraz bat eta euskaraz bestea, ikas-
turteari hasiera emateko. Bost urteko bidea egin dute, jada, liburutegiko irakurle taldeek. Zein da balorazioa?**

Bi talde hauek dagoeneko oso finkatuta daude eta osasuntsu. Hilean behin elkartzeko gara eta dinamizatzaileak gomendatutako liburuari buruz jarduten dugu.

Dena den, aukera hau aprobetxatu behar dut zera esateko: euskarazko taldean gizakume bakarra dagoela; 15 partaidetik bakarra! Oñati bezalako herri euskaldun batean zer pentsa ematen du honek, ezta? Mutilok,

‘Tertulixan’ euskarazko irakurle taldean gizakume bakarra dago, 15 lagunetik. Oñati bezalako herri euskaldun batean zer pentsatua ematen du horrek. Mutilok, animatu eta parte hartu

EGITARAUA

LIBURUTEGIEN NAZIOARTEKO EGUNA


<p>URRIAK 17, KULTUR ETXEAN (18:30) TERTULIXAN Gaztelaniaz <i>Estrómboli</i> (Jon Bilbao) liburuaren inguruan, Ivan Repilak dinamizatuta</p> <p>URRIAK 19, GOIKO BENTAN (19:00) JOXAN ARTZE GOGOAN Poesia eta kantak. Mixel Ducáu eta Andoni Salamerok dinamizatuta.</p> <p>URRIAK 24, KULTUR ETXEAN (18:30) IPUIN KONTAKETA Helduentzat ‘Cuentos del Japón’. Japoniako ipuin tradizionalak Yoshi Hioki-ren eskutik.</p>	<p>URRIAK 25, KULTUR ETXEAN (18:30) IPUIN KONTAKETA Haur eta familientzat ‘Retro ipuinak’ Miren Larrearen eskutik</p> <p>URRIAK 31, KULTUR ETXEAN (18:30) TERTULIXAN Euskaraz <i>Gailur ekaiztsuak</i> (Emily Brönte) liburuaren inguruan, Yurre Ugartek dinamizatuta.</p> <p>URRIAK 22-24-25, KULTUR ETXEAN BISITA GIDATUAK 4 urteko haurrentzat ‘Aurorita Beti Polita’k gidatuta</p>
--	--

animatu eta parte hartu!

Gazteen ‘irakurketa taldea’ ere jarri zenuten martxan orain dela bi urte. Zertan da?

Gai zaila jarri duzu mahai gainean. Autokritika eginez, gure hutsune handiena dela aitortu behar dut. 12–16 urteko gazteekin konektatzea kostatzen zaigu. Taldetxo bat sortu genuen bai, baina ez zuen jarraipenik izan. Iaz, eta Galtzagorri Elkartearekin batera, ‘Booktuber Boom’ lehiaketan parte hartzera gonbidatu genituen, erkidegoko beste gazteekin batera, baina erantzuna ere, ahul samarra izan zen.

Irailean izan dugu berriro ere ‘Booktuberren kedada’ liburutegian eta oraingoan 40 gaztek hartu dute parte baina eskolatik bideratuta zegoen ekitaldia. Ea oraingoan bultzada ederra ematen diogun proiektu honi.



JOXAN ARTZE GOGOAN!

Idazle, kultur sustatzaile eta ekintzaile usurbildarraren irudiaz eta obraz gozatzeko ekitaldia egingo da Arantzazuko Goiko Benta ostatuan urriaren 19an, 19:00etan

**Haurrak ere oso kontuan izaten dituzue udal liburutegian. ‘Ostegun Kontalariak’ ekime-
naren barruan, hileko azken ostegunetan ipuin kontaketa saio bat antolatzen duzue, eta ikasturteko lehenengoa urri-
aren 25ean izango da.**

Bai, hala da, Ostegun Kontalariak saioen osasuna ere bikaina da. Baina gure liburutegian dauden irakurle taldeei buruz hitz egiten ari garenez, umeen Irakurketa Kluba ere badugula aipatu behar dugu. Urtero hiru saioko tailerra antolatzen dugu, guraso eta umeentzat, eta jende asko leku barik gelditzen da., plaza mugatuak izaten baitira. Gure gogoia eta ilusioa, tailer honetan parte hartu dutenei beste irakurle talde bat eskaintzea izango litzateke, 6 – 8 urteko umeentzat.



“ Autokritika eginez, hutsune handiena 12-16 urte arteko gazteekin dugu. Saiakerak egin ditugu (Irakurle taldea, *Booktuber Boom* lehiaketa...) baina zaila egiten zaigu konektatzea

“ Etorkinei zuzendutako irakurketa Errazeko tailer bat duakagu martxan. Poz handia ematen dit, bereziki, emakume etorkinek tarte bat hartzen dutela beraiantzat

‘Irakurketa Errazeko Tailerra’ da udal liburutegiak abian jarritako beste ekimen interesgarri bat. Zertan da?

Liburutegi publikoek bete behar duten funtzio sozialaren adierazle garbiena da irakurle talde hau. Oñatin osatuta dugun taldea etorkinei zuzenduta dago. Asteazken goizetan elkartzen gara, astero, eta txandaka eta ozen irakurtzen dugu.

Helburuak anitzak dira: integrazioa landu, hizkuntza maila



6-8 urteko gaztetxoek irakurle taldea sortu nahi dugu aurten

hobetu, irakurketaren bitartez “arnasa hartu”. Azken ezaugarri hau garrantzitsua da emakume etorkinen artean batez ere. Etxetik irten eta eguneroko betebeharren artean irakurtzeko tarte hori beraientzat hartzen dutela ikusteak sekulako poza ematen dit. Ez ditugu kalean ikusten, Oñatin bizi direla ere ez dakigu askotan, baina hor daude, eta liburutegira erakarri nahi ditugu. Liburutegia guztiona da eta beraien ahotsa ere entzun nahi dugu! ■

» Egitasmo berriak ikasturte berrirako

➔ IDAZKETA TAILERRA

2019ra begira IDAZKETA TAILERRA antolatzeko asmoa dute udal liburutegian, Arantzazu Ibarrondok aurreratu digun moduan. “Bai, literaturazaleei aukera berria eskaini nahi diegu, beraien grina lantzeaz gain, literaturarekiko afizioa beste herritar batzuekin partekatzeak aukera izan dezaten.

Idazketarako grina duten herritarrak antzeman eta idaztearekin gozatzeko behar dituzten baliabideak eskaintzea da helburua. Ekimen puntual eta isolatu bat izan barik, urteroko bokazioa izango duen egitasmoa sortzea da xedea. Jimu Iturralde idazleak zuzenduko du eta 16 urtetik gorakoentzat izango da, euskaraz”.

➔ PSIKOLOGIA LANTEGIA

Urte berriarekin batera abian jarriko duen beste proiektu baten berri ere eman digu udal liburutegiko zuzendariak: PSIKOLOGIA LANTEGIA. “Herritar baten proposamena jaso ondoren sortu da ekimen hau. Silvina Fondra psikologoak gidatuko du. Hilean behin elkartuko gara dinamizatzaileak gomen-datatuko psikologiako testuak aztertzeko. Testu hauetan oinarrituz gai ezberdinak landuko ditugu: gure jokabideak, nortasuna, emozioak eta motibazioa, pertzepzioa... Gai orokorrak baina pertsonen egunero-kotasuna baldintzatzen dutenak. Aukera ezin hobea psikologia mundura hurbiltzeko!”.

Tailer hauetakoren batean parte hartzeko interesa duten herritarrek eman dezatela izena liburutegian, taldeak antolatzen hasteko

Bezeroen beharrei erantzuteko prest!



GUALBI
AHOLKULARITZA

- ◆ Kontabilitate administratiboa
- ◆ Fiskalitatea
- ◆ Lan-arloa
- ◆ Kontu-ikuskaritza
- ◆ Merkataritza
- ◆ Abokatuak

Euskadi Etorbidea, 6
Tif.: 943 78 16 48

email: onati@gualbiasesoares.com

www.gualbiasesoares.com

Pintura, Eskulan dekoratiboak, Sendabelarrak, patchwork, Hardanger, Myreska...

IKASTAROAK 2018-2019

Udaleko kultura sailak hainbat ikastaro eta tailer antolatu ditu aurten ere. Urriaren 10etik 19ra eman behar da izena, kultur etxean nertan (16:30-20:30), telefonoz (943780353) edo emailaz (kultura.idazkaritza@onati.eus). QR kodean sakatuta aurkituko duzue informazio osoa: datak, ordutegiak, prezioa, irakasleak...



Pintura lehiaketako eta ikastaroetako margolanak ikusgai

Jose Miguel Arranz erandioarrak lortu zuen Oñatiko aire libreko pintura lehiaketako lehen saria (600€). Joana Soldevilla vianarrak eta Antton Urreizti mendarorarrak irabazi zituzten bigarren (400€) eta hirugarren (300€) sariak. Oñatiar onenaren saria (300€) Eñaut Uribesalgorentzat izan zen.

Gaztetxoen mailan Hegoa Larreak jaso zuen lehen saria (100€).

Lehiaketara aurkeztutako lanak eta pintura ikastaroetako ikasle-enak kultur etxean daude ikusgai urriaren 12rarte (egunero, 18:00-20:00)



XV. Mendia eta Natura argazki lehiaketa abian

Aloña Mendiko Mendi sailak Oñatiko XV. Mendia eta Natura argazki lehiaketa deitu du. Ohi bezala, bi sail bereiztuko dira: **A: Gizakia mendian** (alpinismoa, mendi zeharkaldiak, trekking-a, eskalada, BTT... lehiaketa izan ezik); **B: Mendi ingurunea** (paisaiak, mendia, flora, fauna...).

Partaide bakoitzak gehienez 3 argazki aurkez ditzake atal bakoitzean, eta 10 €ko inskripzio kuota ordaindu behar du. Atal bakoitzean 500€, 300€ eta 200€ko hiru sari eta Oñati saria (200€) emango dira. Partaide bakoitzak sari bakarra irabazi ahal izango du atal bakoitzean.

Urriaren 21ean itxiko da argazkiak aurkezteko epea. Internet bidez aurkeztu behar dira www.concursosdigitales.com atarian.



Mendi irteera, Gorobel-Sierra Salvada mendikatera

Gorobel edo Sierra Salvada mendikatea zeharkatuko du Aloña Mendiko Mendi sailak antolatuta, urriaren 21ean egingo den irteerak. Amurrio ondoko Salmantón herrixkan abiatuta, Atatxako lepotik Gorobeleko goi lautadara iritsiko dira, Ungino (1095 m.), Eskutxi (1185m.) eta Aro (1133m.) gailurrak zapaldu ostean Peña Angulo mendatera jeisteko.

Guztira 17,5 km. (1050m.-ko desnibela), 6 bat ordutan egitekoa. Zailtasun barik. Irteera goizeko 7etan. Izen-emate epea: urriak 18, Aloña Mendi tabernan, edo alonomendi.mendi@gmail.com helbidean.



Urte askotan zuekin

Portu Kale 5 • Tel: 943 78 12 65 • www.mapfre.es



AGENDA

10

URRIA

AGENDA

+ INFO

Eskaneatu ezazu QR kode hau agendako deialdi guztiak ikusi ahal izateko.



EMAKUME ZIRKULUA

> URRIAK 24 / 18:45

Urriko ilargi betearekin poesia bizia bihurtuko gara. Eltzian

HITZALDIA

> URRIAK 16 / 17:30

'ERRETIRO AKTIBOA'
Pake Leku elkar-
teak antolatuta.
Hizlaria: Markel
Irizar. Pake Leku



BINGOA

> URRIAK 11 / 17:00

BINGOA PAKE LEKUN
Ikasturte berriko aurreneko bingoa saioa egingo da 17:00-etan, Pake Leku elkartearen.

IKASTAROAK

> URRIAK 11

IKASTAROEN HASIERA
Pake Leku elkarteak ikasturte honetarako antolatu dituen ikastaro eta tailer ezberdinak martxan jarriko dira urriaren 11n

IZAROren KONTZERTUA

> URRIAK 13 / 20:00 Gaztelekuan

Izaro Andres (Mallabia, 1993) musikariaren doinu intimo eta sentsibilitate sakoneko ez gozatzeko aukera izango dugu urriaren 13an Gaztelekuan. Oriol Flores, Iker Lauroba eta Julen Barandiaran musikariak lagun dituela, aurten plazaratu duen *Eason* bigarren diskoko kantak abestuko ditu. Sarrerak: 10€, alde zuzenekoak salgai.

IRTEERAK-BIDAIK

> URRIAK 20

NAGUSIEN MARTXA
Nagusien martxan Legorretan.

> URRIAK 29

GERNIKA
Pake Leku elkarteak txangoa egingo dute Gernikara.

KONTZERTUAK

> URRIAK 14 / 19:00

PURPLE VELLOCET



Bilboko post-reggeaton taldea Iturri tabernan

> URRIAK 25 / 21:00

MICK HARGAN & ANDY MC BRIDE



Folk-rock musika egiten duten eskoziarrak Iturri tabernan

> URRIAK 28 / 19:00

LA BANDA DEL ABUELO
Arrasateko rock taldearen kontzertua Iturri tabernan

SUKALDARITZA

> URRIAN HASIKO DA

ELIKADURA OSASUNGARRIA ETA SUKALDARITZA MAKROBIOTIKOA



Elikadura osasungarria eta sukaldaritza makrobiotikoko ikastaroen 10. edizioa jarriko da martxan. Igandeetan talde berriak baita ere. Informazioa 658 71 90 89.



Zubillaga auzoa 12 • Industrialdea • OÑATI (Gipuzkoa)
Tfona: 943 78 11 15 • Faxe: 943 71 82 50



ARGAZKILARITZA

> SAKONTZE MAILAKO IKASTAROA
Ilunpetan taldeak antolatuta, kurtso osoko ikastaroa. Irakasleak: Itziar Bastarrika eta Ekaitz Zilarmendi. Informazio gehiagorako eta izen-ematea: ilunpetan@gmail.com

> URRIAK 19-20-21
IKASTARO TRINKOA NAGORE LEGARRETAREN ESKUTIK



Ilunpetan taldeak ikastaro trinkoa antolatu du Nagore Legarreta (Hernani, 1981) argazkilari ospetsuarekin. Urriaren 19-20-21ean (ostiral arratsaldea, larunbat goiz eta arratsaldea eta igande goiza) izango da. Oso ikastaro interesgarria argazkilaritzan interesa duen edozeinentzat. Informazio gehiago eta izen-ematea: ilunpetan@gmail.com

HITZALDIA

> URRIAK 27 / 11:00
Baimendu gabeko sexualitatea: Legeria eta Justizia Gipuzkoan (XVI-XVII. mendeak)
Ondarearen Europako Jardunaldien baitan. Hizlaria: Milagros Alvarez. Gipuzkoako Protokoloen Artxibo Historikoan (Ibarra zelaia, 4)

X. OÑATIKO TRIKITI JAIALDIA

> URRIAK 27 / 17:30
Santa Ana antzokian

'Lizargarate' Oñatiko Trikitizale Elkartea antolatuta, Oñatiko X. Trikiti Jaialdia ospatuko da urriaren 27an, Santa Ana antzokian, 17:30etan. Hauek izango dira partaideak:

1. Dorronsoro, Arakama eta Larreburu.
2. Alaitz, Maixa, Kristina eta Amaia.
3. Mirari, Zaloa, Aintzane eta Ander.
4. Xabi, Edurne, Ainara eta Oihana.
5. Izer aitta-semiak, Lutxur eta Epelde.
6. Gari, Iñaki, Iban eta Iker.
7. Maddi, Ane eta Irati.

Azken hauek oñatiarrak. Sarrerak **Arrano** tabernan daude eskuragarri 12 €-tan. Enkarguz ere eskura daitezke helbide honetan: lizargarateelkartea@gmail.com.

Jaialdiaren ostean **afaria** egingo da Gaztelekuan, trikiti doinuek girotuta. Afarirako txartelak 22 €-tan eskuratu ahal izango dira. Laguntzailea: Oñatiko udala

LIBURUTEGIKO BERRIENAK



Haur komikia
"Mi cuerpo está loco"



Haur liburua
"Urpeko bidaia handia"



Literatura
"Mecanografiak"



Literatura
"El rey recibe"



Euskal liburua
"Euskal grafia"



Biografia
"El peluquero de los Beatles"

MERKATU TXIKIA

> **GARAJE ITXIA** salgai Olakua 9ko sotoan. 12,98 m² eta aluminiozko sarrerako ate berria, eroso eta arina. Oso prezio interesgarria. Deitu konpromiso barik: 626410903.

> **GARAJEA SALGAI** Ugarkalde auzoan, 5-6 atarietan. 18 m². 17.000 euro. Harremanetarako deitu 647 51 52 57 edo 610 75 10 17 telefonoetara.

GUARDIAKO FARMAZIAK



ANDUAGA San Lorentzo 3, 943 78 21 16
Urriak 8, 9, 17, 18, 26, 27 eta 28. Azaroak 3 eta 4.

IGARTUA Kale Zaharra 1, 943 78 01 22
Urriak 10, 11, 19, 20, 21, 29 eta 30. Azaroak 7 eta 8.

GARATE Kale Barria 42, 943 78 05 58
Urriak 13, 14, 22, 23 eta 31. Azaroak 9, 10 eta 11.

JULDAIN Kale Barria 6, 943 78 11 28
Urriak 5, 15, 16, 24 eta 25. Azaroak 2, 3 eta 4.

CORTABARRIA

INMOBILIARI AGENTZIA • GESTORIA

Etxe eta lokalen gestio orokorrak

- Administrazioa
- Informazioa
- Salmenta
- Haziendarekin
- Trafikorekin
- Herentziak, eta abar

Kale Barria, 42 behea • Tel.: 943 78 05 87 • email: inkorta@teletel.es



MODA BEREZIA

Kale Barria, 12
Tel. Faxe: 943 71 62 40

Santa Marina (IV)

> Jerardo Elortza eta Xabier Zelaia

Santa Marina plazaren beste ezaugarri nabarmenetako bat ere adierazi gura genuke gaurkoan: bertan kokatu izan dela aspalditik Oñatiko **ganadu-azoka**, alegia. Azken hamarkada hauetan asko aldatu baldin bada ere, duela gutxira arte garrantzi handia eduki zuen eta era aipagarrian eragin zien herriko bizimodu eta ekonomiari.

SANTA MARINAKO FERIA-LEKUA

Herriko barazki, fruitu eta baserriko beste hainbat produkturen merkatuak beheko plaza nagusiaren inguruan eduki zuen bere kokalekua azoka-egunetan; kanpoan luzaroan, eta estalitako eraikinean XX. mendetik aurrera. **Ganadu-feriak**, aldiz, **goiko plazan izaten ziren, Santa Marina aldean**. Oñatin, mendeetan zehar, nekazaritzaren barruan **abeltzaintzak maila eta ekoizpen inportanteak lortu zituen**. Kontuan izan, gure herriko lursail zabaletan hamabost auzo historiko nekazari-girokoak genituela; lauhun baserriak gora zeudela berauetan; eta herri-kaskoan ere berrogeita hamar kale-baserri baino gehiago egon zirela.

Horrek, jakina, mota askotako **etxe-abereen premia** zekarren: zaldiak, mandoak eta astoak **garraiorako**; idiak eta behiak **garraio nahiz soro-lanetarako**; zenbait baserriar itzain gisa ere aritzen ziren, hots, **karretero** moduan; guk geuk ezagutu ditugu horietako batzuk idi-pare dotoreekin basozereginetan edota **ikatz-karriuan**; behiak **esnetarako** eta **umegintzarako** erabiltzen ziren, batez ere; **haragitarako** txahalak (zekorrak eta bigak) ziren estimatuenak, baina beste ganadu handien (idi, behi, zezen eta abarren) okelak ere jaten ziren, zaldiena askoz gutxiago; esan gabe doa animalia txikiagoek ere funtsezko inportantzia zeukatela baserriar nahiz kaletarren elikaduran: zerriek, bildotsek, antxumeek, ardiek, untziek, oilaskoek...

OHIKO FERIAK

Beraz, hainbeste baserri zuen Oñati bezalako herri hazi batean, **derrigorrezkoa** zen abere-produktu horien salerosketarako **feria egoki bat antolatzea**. Aurretik ere moldatuko ziren ziur asko nola edo hala, baina Iñaki Zumaldek *Historia de Oñate*

monografian eskaintzen digun **lehen data 1758koa da**. Ordukoa dugu arlo hau arautuko duen errege-erabakia, gure herrian **ostiralero merkatu librea bideratzeko oinarriak ezarriz**. Aste-roko azoka horretan klase guztietako aleak, pentsuak, ganadu larriak nahiz txikiak eta beste hainbat jenero zilegizko saldu eta erosten ziren libreki eta inolako zerga barik.

Alabaina, hasierako hamarkadetan feriak hartu zuen abiada eta indarra motelduz joan zela ematen du; XVIII. mendetik XIX.era pasabidean suertatu ziren gertaera gatazkatsuen eraginez, agian. Ondorioz, **1801ean, ganadu-azoka astero egin beharrean, hilean behin soilik eratzea erabaki zen**, hau da, hila-ren lehenengo **egubaikotzean**. Eta gezurra badirudi ere, orduko proposamen hark berrehun urte pasa irau du, ia oraintsura arte. Egia esan, XIX. gizaldiko gerra eta liskar ugariak ez zioten asko lagunduko ferien jardunari.

Lehenengo Karlistaldiaren ondoren ere, **1842an, herritar batzuek kinka larrian ikusi zuten ferien etorkizuna**. Hori nolabait konpontzeko, neurriak har zitzala eskatu zioten udalari. Besteak beste honako hauek: **herriko auzoak lau zati edo esparrutan banatu zituzten**; esparru bakoitzeko **bizilagunek, txandaka, Santa Marinara joan behar zuten zegoen feria-egunetan** eta ordu jakinetan, euren idi-pareekin edo behiekin; agindu hori betetzen ez zuenari hamar errealeko isuna jartzen zitzaion; horren kontrola auzoetako **maioralek** gauzatzen zuten, falta ziren baserriarren berri alkateari jakinaraziz; gainera, idi-probetarako harri bat hondatuta zegoelako, udalaren kontura berria taxutzea eskatu zen.

FERIA NAGUSIAK

Ostiraletako ohiko feriaz gain, **beste abere-azoka berezi batzuk** ere burutzen ziren urtean zehar. Esaterako, apirilean, **San Jurgi egunez, ganadu-erakusketa** bat antolatzen zen, sari eta guz-



Eskuman idi-dematarako probalekua Santa Marinako plazan.

ti. Baina garrantzitsuagoa **San Migeletako feria nagusia** izaten zen. **Astebete irauten zuen** eta era guztietako baserri-produktu eta tresnak ekartzen zituzten bertara salgai herriko eta inguruetako nekazari eta merkatariek: aleak, pentsuak, barazkiak, ganaduak, lan-erremintak eta abar.

Hasiera batean **San Migel Txiki inguruan** (maiatzaren 8an) eratzen baldin bazen ere, sasoi horretan eguraldia euritsua izaten zelako-edo, feria nagusia **udazkeneko San Migeletara** (irailaren 28ra) **aldatzea erabaki zen 1800ean**. Arestian aipatu den legez, zortzi eguneko iraupena izaten zuen, eta pentsatzekoa da **herriko jai nagusien ardatz** bihurtuko zela feria bera, haren inguruan pilota-partiduak, dantzak, zezenak eta beste ikuskizun batzuk eratzen zirelarik. Iruñeko San Ferminak ere horrelaxe hasi omen ziren.

San Migeletako feria horietan **ganadu eta animalia hobere-
nentzako sariak** jarri zituen herriko kontzejuak 1878tik aurrera; nola edo hala, gaur egunera arte heldu zaigu ohitura hori. Hasiera hartan behi, idisko, bigantxa, ahari, ardi, txerri, oilar nahiz artaburu-sorta onenen jabeek eskuratzen zituzten premioak dirutan. Urte askoan *Errosarixoko Bixamon* egunez ezagutu genituen antzeko sariketak Santa Marinan. Trantsizio-garaian *Herri Eguna* ospatzen hasi zenean, unibertsitate aurrera eta inguruetara etorri zen, arrakasta handiz, baserriko produktuen feria hori.

FERIA-EGUNETAKO GIROA

Oñatiko baserriarrentzat *ferixa-eguna* handia eta sakratua izaten zen. Hilean behingo jai kuttuna; batzuentzat lanerako edota salerosketarako aukera egokia; beste askorentzat kalera

hurreratzeko aitzakia polita: Santa Marinatik bueltatxoa egin, lagunekin elkartu, nobedadeak komentatu, eguerdian tabernaren batean bazkaldu edo arratsaldean afari-merienda asmatu; eta egun ederra igaro ondoren, ilunkaran edo gau aldera etxera, berandu samar batzuetan. Hori bai, gizonezkoek bakarrik gozatzten zituzten halako egunak, etxeakoandreak baserria zaintzen geratzen ziren bitartean.

Herriko merkatarientzat, eta batez ere tabernarientzako, oso onuragarriak izaten ziren lehenengo ostiraletako baserriarren juntadizo haiek. Araotz, Uribarri, Murgia, Olabarrieta, Larraña, Urruxola, Zañartu, Txantxilipiztegi eta beste zenbait lekutatik heldutako auzotar gutxi itzuliko zen etxera, **kale-bazkaria** edo *frittadaxoren* egin barik. **Oñatiko taberna-jatetxe asko majo betetzen ziren feria-egunetan**: besteak beste, Zenizero-Urubil, Torre, Diortxuena, Goiko Txurruka-Galizia, Txarriduna, Paulito Etxeberriarena, Bujero-Izarra, Luixena, Ona-Perratzailliena garai batean, eta Antonena eta beste hainbat orainago.

Egia esan, baserrietako bizimodua eta ekonomia aldatu ahal, **feria-giroa ere zeharo apaldu eta ia desagertu egin da Oñatin** eta beste herri gehienetan. **Ganaduak aspalditxo ezkutatuziren Santa Marinatik**; urte batzuetan labrantzarako tresnak eta makinak hartu zuten haien lekua; mintegietako landareak ere ekarri ohi zituzten puska batean bizkaitarrek; baina azkenaldian oso noizbehinka heltzen dira hona lehenengo *egubakoitzetan*. Sasoi bateko testigu gisa, **idi-probetarako harriak geratu zaizkigu Santa Marinan**. Eta horiek ere, behe aldean, Gernikako arbolaren aldamenean, urte-mordoxka bat igaro eta gero bueltatu dira euren jatorrizko lekura, auzotar batzuen ahaleginei esker.



Idi-probetarako harria eta ganadua lotzeko zutabeak.



Santa Marina feria-egun batean.

IBURRUST
TABERNA • JATETXEA
Bidebarrieta 6
Tel.: 943 71 62 96
20560 OÑATI

FAGOR
INDUSTRIA TALDE KOOPERATIBOIA





ITTEN BAT

(*) Itten: arrastua, pistia

Dekaloguea (I)

Zeuren agobizi!

Euskaldunketan dabilteizñak ez uxaketako jarraibidia

Betik esan izan da Oñati herri euskalduna dala, hori eztago ukaketarik, eta dakon ahalmena izugarria dala, baiña zoritxarrez ahal horren hamarrena be ezta ifintten ikasten dabilteizñen zerbitzura. Normalian kontrakua pasaitten da, bata bestiarri bizkarra emunda bizi gara.

Hona hemen muga horreik apurketako kontseju batzuk:



1. Suabe hartu eta soseguz egin berba.
2. Garbi berba egin, ez agopeian.
3. Pazientzia izan.
4. Lagundu
5. Animau
6. Geuria erakutsi (*agobizi izan zatez*) eta beria ikasteko gertu egon.
7. Erdarazko makuluak ebali, bihar darian.
8. Itzulpenera jo, bihar darian
9. Ez espero goizetik gaberako milagrorik. Segi horretan etsi barik.
10. Eutsi ahalegin horri eta pentsau berezko komunikaziñua denboriagaz aillegauko dala.

Letra saldia (I)

'Ur' errua benetan ugarixa da berbak sortzerunzkuan: berba-alkartuak, eratorrixak, leku-izenak, baserri-izenak, abizenak... zer ezta emuten! Ia, ba, topaitten ditzuzun letra salda honetan dagozen hemeretxizak.

U	G	A	R	T	E	U	R	B	E	R	O
I	R		U		U	R	A	M	I	L	
U	R	B	E	D	E	I	N	K	A	T	U
R	A		U		A	U	R	B	I	Z	I
B	G	I	I	Z	T	A	K	R	A	H	U
I	E	R	G	T	S	D	U	R	A	T	E
E	N	R	E	L	I	P	I	X	T	R	U
T	R	A	T	A		U	R	B	A	T	U
A	U	B	R	B	U	R	O	I	L	O	M
B		U	U	R	T	Z	A	I	L	L	E
U	H	A	R	U	O	A	D	R	A	R	U



Euskaltzaindiaren 1968ko kongresua Arantzazun

Fotografixa honek be badako bere historixia: orain dala 50 urte Euskeriaren Akademixiak Arantzazun egin eben kongresua-
ren testigu grafiko bakarrenetakua dogu. Zergatik ete? Ba, orain dala gizaldi erdi etzan giro hemen. Izan be, gorabehera la-
tzak egon ziran, bagillian hasi, abuztuan jarraitu eta akabera bariko salbuespen-egoera bilddurgarria ekarri euskuen.

Euskaltzaindiaren sorreriaren 50. urteurrena ospaketako aitzakixiaz, batzarra Oñatiko unibersidade zaharrian egittia pentsauta
eukain, euskeriaren batasun-prozesuari behin-betiko pultzakadia emuteko asmotan. Baiña orduko egoera politiko nahasixa
zala-eta, Arantzazun moldau bihar izan ziran, ixil antzian. Hori izan leike argazki-eskasiaren arrazoi nagusixa. Bestalde, zen-
bat elizgizon agerketan diran orduko euskaltzalien artian, eta zein emakume gutxi. Batzarrian parte hartu euen danak be ezta-
toz argazkixan.

Egun honeittan leku askotan agertu da fotografixa hau, baiña, gure ustez, akatsekin kongresukide batzuk identifikaitterakuan.
Behetik gora eta ezkerretik eskumara honeik dira ezagutu dittugunak:

1. illaran: Plazido Mujika, jesuita urnietarra; Juan Garmendia, Zeleta, lasartearra; Pierre Lafitte, apez luhusoarra; Luis Villa-
sante, frantziskotar gernikarra; Imanol Berriatua, frantziskotar elantxobetarra; Manuel Lekuona, apaiz oiartzuarra, orduko eus-
kaltzainburua; eta Antonio M^a Labaien, tolosarra.

2. illaran: Balendin Aurre-*Apraiz*, ajangiztarra; Eufronio Agirre, maruritarra, erlijioso klaretarra; Pedro Maria Iriondo [?]. Oña-
tiko udaleko funtzionariuxa; Koldo Mitxelena, errenterierra; Jose Luis Zurutuza, frantziskotar zegamarra; Karmelo Etxenagu-
sia, abade iurretarra; Andoni Amutxategi [?]; Jose Antonio Arkotxa, mutrikuarra; eta Julita Berrojalbiz, ajangiztarra.

3. illaran: Balendin Lasuen, zaldibartarra; Bittor Arozena, sakramentino azpeitiarra; Juan Mari Lekuona, apaiz oiartzuarra; Joxe
Mari Allur, legorretarra; X. X.; Mikel Zarate, abade lezamarra; Julene Azpeitia, zumaiarra; Isidro Baztarrrika, beneditar ataunda-
rra; Anbrosio Zatarain, donostiarra; honen atzian, Patxi Altuna, jesuita azpeitiarra; eta atzeragokua Basilio Bergara, zarauztarra.

4. illaran: [X.] Pertika (semea); X. X.; horren atzean, Gabriel Intxaurrendieta, jesuita lezoarra; Josu Oregi, bergararra; Jose Bas-
terretxea gernikarra, *Oskillaso*; Pierre Xarriton, apez hazpandarra; Euxebio Osa, laterandar bergararra; Iñaki Beristain, frantzis-
kotar erreizildarra; X. X.; Joan Mari Torrealadai, frantziskotar forutarra; Emil Larre, abade baigorritarra; Ramon Saizarbitoria,
donostiarra; Rikardo Arregi, andoiandarra; Patri Urkizu, lezoarra; eta Libe Altuna, monjia.

Goixenian: Juan San Martin, eibartarra; Pedro Berrondo, apaiz oiartzuarra; Miren Goñi tolosarra, Josu Oregiren emaztia; eta
bi ezezagun.

J. E.

Fotografixa Arantzazuko fraideren batek atarako eben, seguru asko. Eskerrak Pruden Gartzia, Antton Ugarte,
Joxemari Allur, Jabier Arriaran eta Iñazio Arregiri eskuratu doskuen argibidiengatik.



centro hogar MUEBLES



ZIGARROLA 1
 TEL.: 943 71 10 12
 943 79 15 03
 ARRASATE



ZERKAOSTETA 3
 TEL.: 943 71 10 11
 ARRASATE

**grupo
 amuebladora
 mondragonesa**

